

**“IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK
ESKOLA TESTUINGURUAN: ESKOLA TXIKI
BATEN KASUA”**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Leire Urretabizkaia Eraso

ZUZENDARIA: Esti Amenabarro Iraola

GRADUA: Lehen Hezkuntza

MINORRA: Heziketa Berezia

EKAINA 2020



Lan honi aurre egiten lagundu didazueneroi,
Familia, lagunak,
Irakasleak, Esti
Eskerrak zuei

¹ Azaleko irudia: Lehen Hezkuntzako hurrek eskola, familia eta irakaslearen arteko harremana ulertzeko egindako marrazkia.

Nahiz gertatu gozatzea

Bezelaxe sufritzea,

Bere poz eta bere min

Ederra da bizitzea

- Julio Soto -

**IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK ESKOLA TESTUINGURUAN:
IKAZTEGIETAKO HERRI ESKOLAREN KASUA**

Leire Urretabizkaia Eraso

EHU/UPV

Honako hau, Gipuzkoako herri txiki batean kokatuta dagoen ikastetxe publiko bateko irakasleen arteko harremanak aztertzen dituen Gradu Amaierako lana da. Lan honen bidez, Eskola Txikien ezaugarri bereizgarriek irakasleen arteko harremanetan duten eragina aztertu nahi izan da. Horretarako, metodologikoki bertan lan egiten duten irakasleen bizipen eta usteak oinarri hartu ditugu, bertako lau irakasle protagonista bihurtuz eta hauekin elkarrizketak burutuz. Elkarrizketa horien ondorioz esan dezakegu Eskola Txikiak nahiz eta harremanetarako erraztaile diren, ezaugarri horiek ez direla zertan determinanteak izan.

Hitz gakoak: Lehen hezkuntza, Irakasleak, harremanak, Eskola Txikia.

Este es un trabajo de Fin de Grado que analiza las relaciones de los profesores de una escuela pequeña, en concreto de una escuela situada en un pequeño pueblo de Guipúzcoa. El objetivo de esta investigación es averiguar si los elementos que caracterizan este tipo de escuelas son favorables para fomentar las relaciones interpersonales del personal docente. Para ello, se ha querido trabajar metodológicamente en base al testimonio de los profesores, realizando diferentes entrevistas a los mismos. A consecuencia de dichas entrevistas, hemos podido confirmar nuestra hipótesis, y consecuentemente, se puede decir que las escuelas pequeñas, a pesar de que tengan elementos que pueden facilitar las relaciones entre los docentes, no son determinantes a la hora de entablar relaciones.

Palabras clave: Educación Primaria, Profesores, relaciones, Escuela Pequeña.

This is a Final Degree Assessment whose aim is to analyse the effects that the characteristics of a small school can have in the relationship between teachers. In this case, the school is located in a small location in Guipúzcoa. To reach our goal, teachers have been doing different interviews. Through such interviews, we could confirm our hypothesis, and so we can say that small schools have elements that can make it easier to build a relationship between teachers, but, instead, they are not determinant.

Key words: Primary education, Teacher, relationships, Small School.

AURKIBIDEA:

SARRERA	1
I. ATALA: OINARRI TEORIKOA	3
1. IRAKASLEA	3
1.2. Irakasle izatea gaur.....	3
1.2. Irakaslearen pertzepzioak	8
2. HARREMANAK ESKOLAN.....	10
2.1. Kontzeptuaren inguruan	10
2.2. Harremanen dimentsio ezberdinak	12
2.3. Harremanak eta eskolako giroa	16
2.4. Harremanak eta eskolako kultura	16
3. ESKOLA TXIKIAK: Espazio txikiak baina aukera handiak	17
3.1. Zer dira eta nondik datoz?	17
3.2. Bereizgarriak diren ezaugarriak	19
II. ATALA: HELBURUAK.....	22
III. ATALA: METODOLOGIA	22
3.1. TESTUINGURUA ETA PARTE HARTZAILEAK.....	25
3.2. TRESNAK ETA PROZEDURA	26
IV. ATALA: EMAITZAK.....	28
V. ATALA: ONDORIOAK.....	44
VI. ATALA: HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	46
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	48
ERANSKINAK	53
1. Eranskina: Ikastetxeko zuzendariaren baimena	53
2. Eranskina: Elkarrizketatutako profesionalen baimenak.....	54
3. Eranskina: Elkarrizketa gidoiak.....	55
4. Eranskina: Irakasleak neurri berrien inguruan informatuz:	56

TAULEN AURKIBIDEA:

I. Taula: Konfiantza ematen duten elementuak.....	12
II. Taula: Eskola testu- inguruan taldekatzeak egiteko irizpideak.....	14
III. Taula: Ikerketan parte hartu duten irakasleen informazioa.....	26
IV. Taula: Ikerketa lan hau egiteko zehaztu ditugun analisi unitateak.....	28
V. Taula: Hobekuntza proposamenak.....	46

SARRERA

Honako Gradu Amaierako Lan honetan Ikaztegietako (Gipuzkoa) eskola txikiko irakasle talde baten arteko harremanak aztertu ditugu. Honen bitartez, harreman horiek eskolako kliman zein kulturaren daukaten eragina analizatu nahi izan dugu. Guzti hau egiteko Ikaztegietako Eskola Txikia aukeratu dugu, eta hori horrela izateko, uste batetik abiatu gara: Eskola Txikiak, espazio txikiak baina harreman aukera handiak eskaintzen dituzten espazioak dira. Izan ere, eskola hauek, tamainaz txikiak izateaz gain, irakasle kopuru murriztagoak dituzten eremuak dira. Horrela bada, honek guztiak, irakasleen arteko harremanak askoz ikusgarriagoak izatea eragiten duenaren ustetik abiatu gara.

Badago pertsonalagoa den beste arrazoi bat ere, nire ibilbide akademikoa bertan hasi nuen. Modu berean Lehen Hezkuntzako Gradu lehen praktikaldia ere bertan burutu nuen. Ikaztegieta Gipuzkoako herri txiki bat da, Tolosaldeako bailaran kokatua eta bertako eskola bakarra da eta izaera publikoa du. Bertan gaur egun hamar irakasle lan egiten dute, eta haietako laurekin osatu da lan hau egiteko lagina. Bertako ikasle izanak ikertu dugun testuingurura hurbiltzeko erraztasuna eskaini digu. Lan hau irakasleekin osatu dugu, haien ahotsekin. Eta horretarako metodologia kualitatiboa baliatu dugu; irakasleek haien artean eraikitzen dituzten harremanak ezagutu eta haien nolakotasuna ulertzeko ezinbestean irakasleen pertzepzioak ezagutu nahi izan ditugulako. Honela lan hau irakasleek haien praktikan zehar sortzen eta birsortzen duten ezagutzan oinarritu dugu. Horretarako haiekin komunikazioa abian jarri dugu sakoneko elkarrizketak burutuz.

Gure egitasmoa COVID 19ak eragin duen osasun larrialdiak goitik behera baldintzatu du. Irakasleekin irekia genuen komunikazio sare aberatsa eten egin du. Honela, lan honetan ikus entzuneko antropologiaren ekarpenei jarraiki argazkiak baliatuz irakasleen narratibak sortu nahi genituen haien argazki eta esperientzien kontakizunekin. Irakasleak haien harremanen inguruan gogoeta egin eta irakasleen etengabeko prestakuntzan eragiteko asmoz. COVID 19ak eragin duen saio presentzialen eteteak aukera hau baztertzea ekarri badu ere bere birtualitatea aldarrikatu nahi genuke.

Harremanak aztertzea gure ustetan garrantzitsua da ertz askotatik. Eta lan honetan horietako batzuk azaltzen saiatu gara. Harreman bat bi pertsonen edota gehiagoren artean sortzen den hartu- eman bat da. Baina gure ustetan ez dago irakaskuntza ikaskuntza ulertzeko modurik ez bada bere baitan gertatzen diren harreman eta interakzio askotarikoen bitartez. Irakasleen arteko harremanak eskola testuinguruan alde anitzeko eragina dute: bertako giroan, kulturaren, praktiketan, komunitatean. Batetik irakasle lanbideari dagokionean, bere asebetetzearekin lotura zuzena du, baita ikasleen ikaskuntza prozesuarekin ere. Gainera, guzti honek irakasleen etengabeko prestakuntzan balio handia du. Honela, esan dezakegu harreman sanoak eraikitzen dituzten eskolek, kolaborazio sare eraginkorrek, klima osasuntsuak sortzeko aukera gehiago dutela.

Lan honen garapen prozesuan, beste hainbat gauza ikasteko aukera izan dugu, hala nola, hezkuntza eremuko ikerketa bat burutzeko unean abian jarri beharreko estrategiak. Interes berezia jarri nahi izan dugu irakasleen esperientzia eta kontakizuna edo errelatoaren garrantzian. Hezkuntza ikerkuntza eremuko lan asko bertako aktoreen iritziak hartu gabe idazten direla ikusi izan dugu eta gure ustetan eskola eraldatu eta gauzak beste modu batera egin nahi duen praktika orok bertako protagonisten ahotsak aintzat hartu behar ditu. Modu berean irakaslearen rola ere aldarrikatu nahi izan dugu gure ustetan eskolan ukalezko erreferentzia da; eskola eraldaketa gertatzeko motorra izan daiteke eta irakasle lanbidea hain debalatu dagoen garaiotan bere garrantzia azpimarratzea inportantea dela uste dugu. Irakasleari bere entitatea eta agentzia zor zaio.

Aurkezten dugun ikerketa lan honek hainbat atal ditu: lehenik eta behin, marko teoriko bat landu dugu. Bertan harremanen inguruan errebisio bibliografikoa egin ondoren berau ulertzeko hainbat kontzeptu argitzen diren: irakaslearen egungo rola, etorkizunari begirako erronkak, harremanen dimentsioak; metodologiaren atalean berriz, lan honen oinarri diren fundamentu metodologikoak azaldu ditugu. Segidan, lan honen emaitzak, irakasleekin izan ditugun elkarrizketen bilketa hain justu. Azkenik, ondorioak eta etorkizunari begirako gure ekarpenak egin ditugu.

Bukatzeko esan lan hau balio inklusiboetan txertatu dugu. Ikuspegi denak, guztiok ahots propioz onartu, aitortu eta errespetatuak izango diren espazio osasuntsuak eraikitzeaz ari gara eta hau ezinbestez ikuspegi bateratzaile batetatik egin behar da.

I. ATALA: OINARRI TEORIKOA

1. IRAKASLEA

1.2. Irakasle izatea gaur

Tradizionalki, etimologiara jotzen badugu, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiaren (2020) arabera, irakaslea gairen bat irakasten duen pertsona izan da historian zehar. Irakaslearen lanbidea asko aldatu da. Castellsek (2006) azaltzen duen moduan, aro digital batean murgilduta aurkitzen gara, teknologia digital eta Internetaren ondorioz ohitura eta bizitza estiloak ere aldatu diren teknologiaren gizartean hain zuzen. Gainera, tresna teknologikoez lan egiteko, informatzeko, jostatzeko eta orokorrean gure gizartean parte hartu eta bizitzeko modu berriak ekarri dituzte.

Irakaslea jada ez da ezagutzak dituen pertsona hori. Ezagutza gaur globala da eta edonoren eskura dago modu erraz batean. Honek irakaslearen lanbidea bestelako parametro batzuetan ulertu beharra ekarri du.

Ildo beretik, Baumanek (2007) azken mende erdiko aldaketa hauek hezkuntzaren esentzia kaltetzen eta aldatzen dutela dio, orain artean sekula kolokan egon ez ziren hezkuntzako hainbat uste zalantzan jarritz.

Hoy está en tela de juicio lo invariable de la idea, las características constitutivas de la educación que hasta ahora habían soportado todos los retos del pasado y habían emergido ilesas de todas las crisis. Me refiero a los supuestos nunca antes cuestionados y mucho menos sospechosos de haber perdido vigencia. (Bauman, 2007, 27 or)

Izan ere, teknologiaren gizartean murgildu garenetik, gizakiak ez du ezagutzaren ahozko transmisioaren bidez bakarrik ikasten, ezagutza bestelako elementuen bitartez ere eraikitzen baitu. Kontua da globalizazioaren ondorioz, gizaki ororen egunerokotasunean teknologiak erabateko presentzia hartu duenetik, irakaslearen lana dagoeneko ez dela informazioa ematea, nahi adina informazio baitago edonoren eskura. Orain ordea,

irakasleari informazio hori sailkatu eta ulertzen irakastea dagokio, sarean informazio asko badago ere, topa daitekeen oro ez baita baliagarri. (Imbernón, 2018).

Honek guztiak Hezkuntza Sistema ia guztiak errealitate berri honen aurrean erantzun berriak ematearen beharrea kokatu ditu eta hainbat dilema planteatzen ditu gainera. Batetik hezkuntzaren eremuan klasikoa den galdera bat etengabe mahai gaineratuz: nola ikasten dute gure ikasleak? Zein nolako ezagutzak behar dituzte gure ikasleak gaur egungo mundu globalean? Eta irakasleak hauek hezteko? Zein nolako prozedurak edota metodologiak behar dira irakasteko?

Bistan da aspektu instrumental soiletan oinarritutako irakaskuntzak ez du bermatzen gaur gaurkoz ikasle guztien ikaskuntzarako eskubidea. Aspektu askotatik esan genezake gainera, bai ikuspegi inklusibotik bai eta ikasleen gaitasun eta aukeren aldetik ere.

Gaur hezitzeak, tokian tokiko errealitate eta testuinguruaren konplexutasuna eta ez egonkortasuna aitortzea esan nahi du. Eta testuinguru horretan irakasleak bestelako kompetentzia eta gaitasun batzuk behar ditu. Gaur, hezkuntza sistema desberdinen curriculum proiektuak aztertzen baditugu ikus genezake nola ikasleak bizitzarako prestatzearen inguruan hitz egiten den, horrek zera esan nahi du, ikaskuntza instrumentalaz haratago ikasleak bizitzak proposatuko dituen erronka eta eginkizunak modu egokiagoan egiteko prestatu behar ditugula.

Aldaketa guzti hauek ez dira bapatean etorri ordea. 1996. urtean, Jacques Delorsek UNESCOri hezkuntza eremuko Nazioarteko Batzordeburu zela idatzi zuen “Hezkuntza: altxor ezkutua” txostena izan zen azken urteetako aldaketarik nabarmenenaren abiapuntu. Izan ere, txosten honek eragin ikaragarria izan zuen mundu osoan, baita Euskal Herrian ere, Euskal Curriculum lantzeko oinarri izan baitira txostenak aurreikusten dituen hezkuntza ereduaren lau zutabeak: Ikasten ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea.

Kontua zera da: Besteekin batera bizitzen, elkarrekin bizitzen ikastea. Hau da, pluralismoa eta aniztasuna onartzea. Estatuak zein komunitate tradizionalagoak konprometitzen dituzten gertariek eraiki dute gure mundua. Zaila da ulertarazten

guturiko bakoitza partaide garen komunitatearekiko elkartasunez jokatzear gain, elkartasunez jokatu behar dugula, aldi berean, norbera baino lehenagokoa –eta sarri norberarentzat arrotza– den Estatu batekiko ere. Batasuna aniztasunean, azken batean (Yarza, Berg eta Delors, 2012, 34 or.)

Delorsek aipatutako lau zutabe horiei, ondorengo urteetan, bosgarren bat ere gehitu zitzaion: komunikatzen ikastea. Ondorioz, bost zutabe hauek kontuan hartuz, lan egiteko modu berriak sortu ziren, baita ebaluatzeko ere. Eta modu berri horiek irakasleen arteko harremanetan ere eragin zuten, lan bateratu eta koordinatuagoak egitera bideratu baitzituen.

Gizarte errealitatea konplexua da, askotarikoa eta bertan aniztasun handia barnebiltzen da; pertsonen joan etorri etengabekoa, ziurgabetasunak eskola erronka berrien aurrean kokatu dute. Eta honek guztiak irakaslearen (eskola antolakundean dauden beste eragileei gertatu antzera) lanbidea eta praktika asko aldatu du.

Oinarrietara jotzen badugu, irakaslea irakasten duen pertsona da, herri edota komunitate bateko ondorengo generazioak prestatzeaz arduratzen dena, tradizioz gainera ezagutzarekin lotu izan da, hau da irakasleak asko daki eta ikasleak ikasi egiten du. Gaur gaurkoz ordea, globalizazioak hau aldatu du, irakasleak jada ezagutza eta jakinduriarekiko zuen balizko monopolio hori galdu du. Noski, ez dugu ukatuko irakasleak jakin egin behar du (Imbernón, 2017). Baina bere lana egoki egin ahal izateko, ordea, bere ezagutzak uneko testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoaren arabekoak izatea behar beharrezkoa da. Horregatik, irakasle on bat izateko, historian zehar zabaldu den topikoari kontrajarriz, ez da nahikoa ezagutza eta informazio kantitate handiak izatea. Irakasle on batek, Fernandezek (2010) dioen moduan, formakuntza eta prestakuntza egoki eta etengabeak jaso behar ditu, hori izango baita ondoren bere lana egoki burutu ahal izateko bidea. “Irakasle ona ez da jaiotzen, irakasle ona egin egiten da. Eta uste dut horretarako prestakuntza ezinbesteko lanabesa dela.” (Fernandez, 2010, 18 or.)

Formakuntzaz gain, irakasle batek bere lana egoki burutu ahal izateko, esan daiteke izan beharko lituzkeela oinarritzko ezaugarri batzuk. Imbernónen (2018) arabera ezaugarri horiek jarrera, esperientzia, kultura eta ezagutza dira, baita kultura izatea ere.

Irakasle baten oinarrizko ezaugarriak jarrera, esperientzia, kultura eta ezagutza dira. Jarreraren, ikasleekiko harremana garrantzitsua da, nola jokatu eurekin. Esperientziak aukera ematen du egiten duzunaren gainean pentsatzeko. Bizi dugun kultura eta testuingurua ikasleei erakustea ere garrantzitsua da. Eta noski, irakatsi beharreko gaia ezagutzea ere bai. Elkarlanak, talde lana, errealitatearen azterketa... gehitu behar dira irakasleen lanera. Badago irakasleek izan behar duten beste ezaugarri garrantzitsu bat: kultura izatea, kultura. Irakasleak pertsona kultura izan behar du, testuinguruaren jakitun dena. Gai izan behar du testuingurutik gauzak atera eta aldatzeko, ez testuliburutik soilik. Irakasle kultuak ez du testulibururik erabiltzen. Kultura ez den irakasle bat erreproduzitu baino egiten ez duen irakasle bat da. (Imbernón, 2018, 22 or.)

Horretaz gain, badaude beraien lana hobeto burutzeko bidean topatzen diren beraien jarreraren inguruko beste hainbat ezaugarri ere, hala nola goxotasuna izatea, zaintza eskaintzea bai haur baita familiei ere, entzute aktiboa egitea etab. Guzti hauen bidez, irakaslea bidelagun eta laguntzaile modura hartu daiteke, ikaslearen ikaskuntza prozesuaren alde egiten duen banako gisa. Imbernónen (2018) ustetan:

Zer lortu nahi dugu hezkuntzarekin? Ikasleei adimen soziala ematea: Errealitatea ulertzeko, arrazoitzeko eta gertaeren eta ingurunearen irakurketa kritikoa egiteko erramintak eskaintzea (Sozialak, pentsakorrak, aukerazkoak...). (Imbernón, 2018, 25or.)

Interesgarria den irakaslearen beste ezaugarrietako bat, gogoetatsua izatearena da. Ideia hau laurogeigarren hamarkadatik hona indartzen joan dela esan genezake, garai hartan AEBetan sortutako korronteak itzal handia izan baitu auzi honetan. Korronte horretan zer esana eman duen autore garrantzitsuetako bat Donald Schön dugu, bere “The Reflective Practitioner” (1983) liburuarekin. Liburu hau irakasleen lana ulertzeko eta hontaz hitz egiteko orduan inflexio puntua izan da. Bertan ageri denaren arabera, irakaslearen lanak ez du zientzia aplikatuetako edo teknika instrumentaleko lanekiko antzekotasunik, izan ere, irakaslearen lana bat-batekoa da ein handi batean, eta egin ahala eraikitzen da. Izan ere, egoera konplexu edo berrietan irakasleak gai izan behar du arazoa ikusteko edo planteatzeko beste modu bat sortzeko, eta hortik hipotesiak garatzeko jarduera berrien inguruan.

Ildo horretatik, irakaslea ezin mugatu liteke errezetak jarraitzera edota jardueraren aurretik jaso dituen jakintza teorikoak aplikatzera, zeren aurkitzen duen egoera praktikoa

bakoitza desberdina baita, eta horrek eskatzen dio ekintzan zehar eta ekintzaren ondoren gogoeta egitea. Irakasleak, beraz, harreman gogoetatsua izan behar du bere lanarekiko:

From the perspective of Technical Rationality, professional practice is a process of problem solving. Problems of choice or decision are solved through the selection, from available means, of the one best suited to establish ends. But with this emphasis on problem solving, we ignore problem setting, the process by which we define the decision to be made, the ends to be achieved, the means which may be chosen. In real-world practice, problems do not present themselves to the practitioner as givens. They must be constructed from the materials of problem situations which are puzzling, troubling, and uncertain. Problem setting is a process in which, interactively, we name the things to which we will attend and frame the context. (Schön, 1983, 40 or)

Honen arira, Schönen arrastoari jarraituz, Fernandezek (2010) irakasle on batek bere buruari bere jardunean egindako ekintza horien inguruan galdetu beharko liokela dio:

Zer egingo dut aurrean ditudan hauek benetan ikas dezaten? Izan daitezten, benetan, pedagogo onak, maisu-maistra onak, ingeniari onak, sendagile onak...? Edota, beharbada, galdera beste modu batez egitea izango litzateke gakoa. “Zer egingo dut gaur?” galdetu beharrean, “Zer egingo dut gaur ikasleek, modu esanguratsuan, gehiago ikas dezaten?” galdetu beharko lioke irakasleak bere buruari. (Fernandez, , 2010, 19 or)

Hala ere, ezinezkoa da hau aurrera eramatea norberak bere buruaren inguruko ezagutza eduki ezean. Emozioetan oinarritutako metodologiak irakasleak etengabe beraien izatearen, existentziaren, lanbidearen eta harremanen inguruko hausnarketak egitera bultzatzen ditu. Horretarako, eguneroko lan aldiaren hasieran eta amaieran hausnartzera bultzatzen ditu, hori baita bakoitzak bere jardunean hobetzeko bidea. Izan ere, norbere buruaren ezagutzaren bidez bakoitzak bere buruaren inguruko kontzientzia sortzeaz gain, ingurua hobeto ezagutu eta honekiko sintonia batean egotea ahalbidetzen da. (Hué, 2012)

Era berean, Bennettek (2013), auto ezagutzak pertsoneri beraien burua bizitzako aspektu guztietan ezagutzea ahalbidetzen diela dio. Autorearen arabera: “Barnekoa den

ezagutza honek geure buruarekin eta inguruarekin hobeto bizi gaitezen ahalbidetzen du, geure dohainak azaleratuz eta akatsak garaienetan eraldatuz". (Bennet, 2008, z.g.)

1.2. Irakaslearen pertzepzioak

Orain artean aipatutakoaren arabera, irakasleak alor ezberdinei lotutako zereginak dituela esan genezake; irakaskuntza ikaskuntza prozesuei lotutakoak batetik eta burokraziari lotutako lan administratiboak bestetik. Hala ere, sarri, berauenak ez diren eginkizun batzuk egozteko joera ematen da, berauengan erantzukizunez betetako zama bat ezarri eta ezinegona sortuz, adibidez guraso funtzioak egitea eskatuz. Irakaslea bere identitatea eraikitzen doa bere lan garapena bermatzen den neurri berean. Irakaslearen lan sozializazioa oso lotuta dago lan esparruan dituen esperientzia, bizipen eta harreman zein interakzioekin. Eta honela esan dezakegu bere lanari aitortza elementu gakoetako bat da. Bestelako zeregin eta eginbeharrak atxikitzeak sarri aldendu egiten gaitu ikuspegi horretatik eta irakaslea nekatu lezake. Horren inguruan hitz egiten digu Jiménezek (2008), bere ustetan ardura hau gero eta zorrotzagoak diren gainerako eginkizunekin bateratuz gero irakasletza sarri lanbide nekagarri eta estresagarri bilakatzen du.

Honek guztiak, irakasleen ezinegon eta deserosotasunak areagotzen ditu. Bisquerrak (2011) bi estres mota daudela dio; bata positiboa dena, lanerako motibazioa eta mantentzeko behar den presio puntu hori ematen duena, eta bestea negatiboa, irakaslearen lan asebetetzean eragina duena, honengan kaltea eraginez. Azken honen moduko estresak lan uzteak, gaixoaldiak eta bestelako ezbeharrak eragiten ditu, baita eskolako praktika garatzeko unean oztopo edo galga efektua egin ere.

Estres negatibo hau lanean erantzukizun eta eskakizun gehiegi eta horiek aurrera eramanez ahal izateko errekurso falta duzunean sortzen da (izan baliabide material, denbora, espazio etab.-en ondorioz). Horrelako kasuetan, langilearengan egoera psikologiko ezkor bat sortzen da, eta hau modu ezberdinetara kanpora daiteke, horien artean, adibidez lan- atsekabearen edo Burnout izeneko sindromearen bidez. Honek guztiak, Salanova et al. (2003) arabera, ondorioak sortzen ditu:

Burnout izeneko sindromea duten pertsonak beraien buruarengan nahiz ingurukoengan ondorio negatiboak eragin ohi dituzte. Irakasleek, adibidez, gogaitasun eta asperdura

hau nekearen bidez adierazten dute, baita ondoez psikologikoaren, motibazio faltaren eta ikasle eta lanarekiko jarrera zinikoen bidez ere. (Salanova, Llorens eta García-Renedo, 2003, 18 or.).

Hala ere, Salanovak (2003) estres honen jatorrira hurbiltzeko saiakeran, berau eragiten duten iturri nagusiak bildu ditu, ondorengo hauek izendatuz:

- Lan kantitate handia denbora gutxian burutu beharra.
- Gehiegizko inplikazio emozionala exijitzea, bai ikasleekin, guraso eta familiekin edota gizartearekin.
- Bere rola zein den argi ez izatea; zentroak, ikasleek, gurasoek edo orokorki gizarteak berarengandik zer espero duten ez jakitea.
- Agindu kontrajarriak jasotzea bere egin- beharrak zein diren azaltzeko orduan.
- Gainerako lankideen, zentroaren etab.-en sostengu eta babes falta.
- Lanerako orduan lankideen arteko koordinazio falta.
- Ikasleengandik jasotako motibazio eta disziplina eza, baita apatia ere.
- Material didaktikoarekin edota instalazioetan izan daitezkeen matxurak bezalako oztopo teknikoak.

Orain artean aipatutakoaz gain, Estevek (1984) aipatzen duen moduan, irakasleen beste kezka nagusi bat ikaslea entzun, ulertu eta bere beharrak zein diren identifikatzeko zailtasunak izaten dira, hauek hautemateari esker bertatik lan egin eta ikasleari laguntzea askoz errazagoa baita. Bere arabera, irakasle askok beraien lan eta saiakera ororen fruitu eta emaitza ikusten ez dutenez, frustratu eta ilusioa galtzera iristen dira.

Irakasleak bere lanean topatzen dituen zailtasunekin jarraituz, Torresek (2006) argitaratutako liburuan beste hainbat ere identifikatu eta izendatu zituen. Hala nola, irakasleek sarri ez dituztela Hezkuntza sistemaren helburuak ulertzen, formakuntza eskasa jasotzen dutela (bai hasieran, baita beraien ibilbide profesionalean zehar ere) edota familiekin harremantzeko zailtasunak izaten dituztela, beste hainbaten artean. Torresek (2006) guzti hau eskolari orohar instituzio bezala egiten dion kritika sakon eta zorrotz baten testuinguruan ulertu behar dugu (neoliberalismoak eraiki duen eskola). Bere ustetan eskolak modernitatean ezarri ziren helburu uniformizatzaileei mesede egiten die. Eta

eskolatzea masiboa bada ere oraindik orain eskolak desberdintasun sozialak areagotzen jarraitzen du. Batetik curriculum ezarri eta orokorrak, ikasle asko kanpoan uzten dituelako eta bestetik irakasteko eta ikasteko metodologietan ez delako bere ustetan urrats esanguratsurik eman kasu askotan. Oraindik eskola publikoa ez da behar bezain sendoa desberdintasun sozialak murrizteko.

Modu berean interesgarria da irakasleen errealitatea ulertzeko orduan, haien partehartzea eta eskola lidergoari erreferentzia egitea. Eskola ulertzeko unean bertan barne biltzen diren eragileen arteko harremanak ulertzeko partehartzeak informazio interesgarriak eskaintzen ditu. Eskolan bizitzan partehartzea ahalbidetzen duten mekanismoak finkatzeak batetik irakaslearen ahalduntzean lagun dezake, baita harremanak eta giroa hobetzen ere (Fullan eta Heagreaves, 2014) eta bestetik eskolan demokratizazio prozesuen bidez bestelako harremanak susta daitezke. (Apple eta Beane, 1997)

2. HARREMANAK ESKOLAN

2.1. Kontzeptuaren inguruan

Bi subjektu edota gehiagoren artean etengabeen elkar trukeak ematen diren neurrian, harremanez inguratuta bizi garela esan daiteke. Harreman hitzaren definizioan zentratuz gero, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiaren (2020) arabera harreman bat “Pertsonen edo pertsona multzoen artean gertatzen den eragin trukea edo komunikazioa” dela esan genezake. Hau hezkuntza esparrura ekarrita, eta zehazki irakasleen gaira eramanda, eskola bateko irakasleak etengabeen harremantzen direla esango genuke. Imbernónek (2018) dioten moduan “Isolatutako irakasleak ez du funtzionatzen. Talde- lana nahitaezkoa da. Hil da irakaslea; gora irakasle- taldea”. (Imbernón, 2018, 18 or.)

Harremanak, ordea, askotarikoak izan daitezke, hainbat faktorek baldintzatzen baitituzte. Irakasleen artean, Hernándezen (2011) arabera, nagusiki bi motako harremanak ematen direla esan genezake; harreman pertsonalak eta harreman pedagogikoak. Eta biak elkarrekin lotuta daude.

Harreman pedagogikoak subjektuen arteko elkartzetako bat dira. Elkartzetako horretan, subjektu baten jakintza, bestearena eta munduarena batzen dira. Subjetibitatea eta jakinduria elkartzen direnean, harreman pedagogiko hauek agertzen, gauzatzen eta sortzen direla esaten da. Honen ondorioz, egiten dugun horri baina, gertatzen zaigun horri garrantzia gehiago ematen zaio. Izan ere, harreman pedagogikoak ez dira soilik informazio eta jakinduria ikastein oinarritzen, baita elkarrekin eta harmonian izateko eta bizitzeko eretan ere. Horregatik, ezin da esan harreman pedagogikoak kasu guztietan berdin eta horizontalak direnik, baina bai elkarrenganakoak eta elkarrengarizkoak. Eragin egiten dute eta eragin egiten digute. (Hernández, 2011, 8 or)

Bai harreman mota bat zein bestea, positibo eta negatiboak izan daitezke. Orokorrean esan daiteke, badaudela positiboak diren, eta beraz bilatzen dugun hori eskaintzen diguten harremanak, eta baita negatiboak direnak ere, nahi duguna ez emateaz gain, sarri, arazo eta atsekabeak eragiten dizkigutenak. Bi hauen arteko bereizketak egingo du, harreman bat gustagarriago izan dadin edo ez guretzat.

Ildo beretik, gainerakoekin ditugun harremanen konplexutasuna ulertzeko orduan, Yañez et al. (2010) dioten moduan, pertsona horien jatorri soziala, ideologia eta ezaugarri pertsonalak ezagutu behar dira, horrek pertsonen arteko interakzio eta elkarrengarizko zergatia ulertzea ahalbidetuko baitigu.

Beizak (2012) era berean, konfiantzaren garrantziaren inguruan hitz egiten digu. Bere ustez, edozein harreman mota egokia izateko oinarritzat den ezaugarri nagusietako bat konfiantza baita. Izan ere, pertsonak askoz ere erosoago sentitzen dira berarekiko afinitate eta konfiantza sentitzen duten beste banako batekin lan egiten dutenean, eta modu honetan, bi pertsona horien artean harreman positibo bat sortzea askoz ere errazagoa da, honek lan egiteko orduan zuzenki eragingo duelarik.

Hala ere, pertsona batek besteari konfiantza emateko zein ezaugarri izan behar dituen definitzeko orduan hainbat iritzi ezberdin ageri direla jabetu gara. Ondorioz, Yañez Gallardok (2006) historian zehar identifikatu diren elementu garrantzitsuenak aipatzen ditu bere lanean. Honen arabera, bost multzotan bereiz daitezke konfiantzaren oinarriak, guzti hauek elkartzen dituen pertsona bat konfiagarriago bilakatzen delarik.

I. Taula: Konfiantza ematen duten elementuak

KONFIANTZA EMATEN DUTEN ELEMENTUAK:
Konpetentzia
Integritatea, segurtasuna
Borondate ona
Irekitasuna
Antolakuntzarekiko atxikimendua

Iturria: Geuk egina, Yañez Gallardo-ren (2006) eskeman oinarrituta.

Honekin lotuta, Ramirez Wongek (2019) aipatu modura, ezinezkoa da gainerakoekin harreman egokiak izatea norberarekin ez baditugu. Horregatik, lehenik eta behin bakoitzak bere buruarekin lanketa bat egitea beharrezkoa da, auto ezagutzan, komunikazio gaitasunean eta nor- bere emozioen errekonozimendu eta kontrolean trebatuz.

Auto ezagutzaren bidez norbere buruaren kontzientzia eduki ohi dugu, inguratzen gaituen kontestua ulertu eta sintonian egotea ahalbidetuz. Komunikazio gaitasunak, aldiz, harremantzeko tresna boteretsu modura jarduten du. Horregatik ideia, adostasun eza edo sentimendu ezkor bat modu egoki batean komunikatzen jakiteak gainerakoekin harreman hobek ezartzea ahalbidetzen du. Horretaz gain, emozioak identifikatzen lan egitea ere beharrezkoa da, honi esker ikasiko baitugu hauek kontrolatzen, kanporatzeko eremu egokiak bilatuz, gure egonezina gainerako pertsonekin ordaindu ordez. (Ramírez- Wong, 2019, 65 or)

2.2. Harremanen dimentsio ezberdinak

Honela bada, harremanak eskolan ditugu aztergai eta Yañez Gallardo et al. (2010) egindako ikerketa batean jasota dagoen moduan, lankideen artean sortzen diren harremanen ondorio eta onurek zuzenki eragiten dute hauen asebetetze laboralean.

Izan ere, irakasleak, eta orokorrean, gizarte honetan bizi garen pertsonak etengabean harremantzen gara gainerako gizakiekin. Harreman hauek pertsona bakoitzaren bizitzetan eragin zuzena izango dute, eta Ramírez- Wongen (2019) ustez, hauek onak direnean pertsonak eroso eta norbere lanarekin konforme sentitzera eramaten duen giro bat sortzen da, honek lanean ardua handiagoz aritzera eramanez. Harreman hauek, aldiz, ez direnean onak, jarrera txar eta nahi-gabekoak indartzen dira.

Gainera, harreman egokien bidez ongi izate eta asebetetze pertsonal bat ematen da langilearengan, eta horregatik esan daiteke lankide eta nagusiekin harreman on bat izateak ez duela soilik erakundearen helburuak betetzeko bidea sortzen, baita konfiantza eta laguntasuneko harremanak indartu ere, pertsonak profesional eta pertsonalki garatzea ahalbidetzen duen giro bat sortuz.

Unas sanas relaciones interpersonales en cualquier contexto, ya sea familiar o laboral, permiten convivir en armonía, construir alianzas y llegar a acuerdos. No es sólo un anhelo personal de los individuos, sino también una necesidad en el ámbito del trabajo. En aquellas empresas donde existen relaciones interpersonales positivas, generan ambientes ideales para el desarrollo de las actividades. Los trabajadores se sienten en confianza de externar sus inquietudes y objetivos, lo que lleva a la posibilidad de alcanzarlos y esto trae consigo, la satisfacción laboral. (Ramírez- Wong, 2019, 9 or)

Izan ere, Rodrigo Yañez Gallardok (2006) adierazten duen modura irakasleen artean ez badira konfiantzazko harremanak sortzen, hauek ez dute eskolako borondatezko lanetan parte hartuko, eta ondorioz, soilik beraien irakasle rolean zentratuko dira. Honek, irakasle modura zentroetan jokatzeko duten paperari zuzenki eragiten dio, irakasleak beraien jarduna egoki burutzeko gainerakoekin izandako elkarrizketa gogoetatsuetan oinarritzeaz gain, besteekin elkarbanatutako informazioaz baliatu behar baitira.

Subjektuok harremanen ondorioz geure arteko taldekatze ezberdinak sortzen ditugu. Honen inguruan Lironek (2010) esan zuenaren arabera, formalitate eta funtzionalitatearen arabera, sortuko diren taldeak ezberdinak izango dira, izaera ezberdin bat emanez. Gainera, talde bakoitzaren izaeraren arabera izango da harreman horiek banako bakoitzarengan sortzen duen eragina. Ondorengo taulan irakasleen artean ematen diren harremantze ezberdinak ageri dira, Lironek (2010) aipatutakoan oinarrituz.

II. Taula: Eskola testu- inguruan taldekatzeak egiteko irizpideak

Formalitatearen arabera:	<u>Talde formalak:</u> Helburu jakin batzuk lortzeko antolatzen eta arautzen direnak dira.
	<u>Talde informalak:</u> Berezkoa eta bat- batekoa den elkarrekintza batetik sortzen direnak dira.
Funtzionalitatearen arabera:	<u>Harremantzeko taldeak:</u> Helburua harremantzea da, eta egin- beharra harremantzeko aitzakia edo abiapuntu soilak denean.
	<u>Lan egiteko taldeak:</u> Zeregin bat burutzeko sortzen diren taldeak dira, eta ez taldekideen artean harremantzeko.

Iturria: Geuk egina, Lironek (2010) egindako eskematik abiatuta.

Gainera, Ball et al. (1989) formalitatearen arabera sortzen diren harreman ez-formal edo informal horien garrantzia azpimarratzen dute:

Rolen eta harremanen eskema formal horren gaineratik, badaude neurri handi batean emoziozko izaera duten taldekatze informal batzuk. Hauek barneko jarreraren eta aurreiritzi pertsonalen arabera gauzatzen dira eta pertsona batek beste batengan izango duen jokabidean eragiten du, baita talde kooperatibo modura elkarrekin lana egiteko gaitasunean ere. (Ball eta Míguez, 1989, 181 or)

Harremanen bestelako bereizketak ere egin izan dira, esaterako Zupiriak (2015) harremanak hiru ezaugarriaren arabera bereizten ditu: Harreman estu edo azalekoak, harreman pertsonal edo sozialak eta maitasun harremanak.

Bestalde, harremanen arteko bereizketan eragiten duen beste faktore nagusi bat denbora eta espazioa dira. Izan ere, Sacristánek (2008) dioen moduan, denbora gauza infinitu bat da, baina era berean, gutariko bakoitza asko mugatzen duena. Denbora geure esperientzia pertsonalak eta talde bizipenak gauzatzen diren unea da, esperientzia gertatzen den bitarteko une hori, edota esperientzien arteko lotura bat elkartzen duena.

Denborak gertatu den, gertatzen ari den edota gertatuko den horren inguruan guk hautematen dugun orden zehatz bat ezartzen du.

Bestalde, espazioak ere berebiziko garrantzia du, honen eta harremanen arteko asoziazioak egiten baitira. Adibidez, klaustro gelan, orokorrean, harreman zehatz batzuk emango dira (pedagogikoak izango direnak), eta ondorioz, klaustro gela harreman pedagogikoekin erlazionatutako espazio bat bilakatzen da. Espazioen eta ekintzen lotura horiek dira eremu bat gustagarriagoa edo desatseginagoa bilakatzen dutenak, beste hainbat ezaugarriren artean.

Honen harira, badaude espazio zehatz batzuk, harreman mota bat baina gehiago (izan formal nahiz informalak) emateko bideratzen direnak. Adibidez, irakasle gelan hainbatetan harreman formalak ematen dira, eta beste hainbatetan informalak. Ondorioz, espazioa ez da beti harreman mota bereizten duena izaten, horrelako kasuetan denborak hartuz paper hori. Beraz, espazio zehatz batean zein harreman emango den jakitea unearen arabera izango da.

Ondorioz, bi ezaugarri hauen konbinaketa egoki bati esker, posible da espazio eta denbora jakin batean lankideekin harreman formal nahiz informalak ematea, eta ondorioz, bakoitzaren onurez baliatzea.

Trillak (1985) espazio eta hezkuntza eredu ezberdinen inguruan hitz egiten du, bertan gertatzen diren prozesuen espazioa formala, informala eta ez formala bezala izendatuz arabera. Gainera, bakoitza ez dela modu isolatu batean ematen adierazten du, hau da, hezkuntza formalak badituela hezkuntza ez formal eta informalaren hainbat elementu, eta baita alderantziz ere. Beraz esan genezake espazioa oso kontzeptu dinamikoa eta aldakorra dela bertan gertatzen diren interakzio eta ekintzen arabera.

Honen guztiaren bidez, eskolan, bizitzako beste esparruetan gertatzen den bezala, espazio ezberdinak daudela esan genezake; badaude espazio formalak, informalak eta ez formalak. Eta espazio bakoitzean gertatzen diren interakzioek, eremu horiek funtzio zehatz batekin lotzea eragiten dutela, espazio- funtzio harreman bat sortuz. Horrela bada, harreman formalak ematen diren eremua, espazio formal bilakatuko da, eta ondorioz, funtzio formal bat hartuko du. (Trilla, 1993)

2.3. Harremanak eta eskolako giroa

Orain artean aipatutakoaren harira, harreman mota horien ondorioak eragin zuzena izango du erakunde horretako (kasu honetan eskolaren) giroaren nolakotasuean. Benito Martinen (2006) esanetan erakunde bateko klima kontzeptuaren inguruan lehen aldiz 1960. urtean hitz egin zuen Gellermanek. Orduz geroztik, teoria eta definizio ezberdin ugari sortu izan dira, eskolako giroa zehaztasunez zer den azaltzeak sortzen dituen zailtasunak agerian jarritz. Hala ere, kontzeptua eskolara ekarriz, honakoa dio Benito Martinek (2006):

Giroaren ondorioz taldekatzeak eta norberaren jarduerak definitzen dituen elkarreaginezko eta harremanezko eredu bat sortzen da. Horrela, eskola bateko giroak, eskola horretan alor ezberdinetan lortzen diren emaitza ororengan eragina izango du.
(Martín, 2006, 5 or)

Ondorioz, giroa balioztapen eta iritzietan oinarritzen denez, norbanako batetik bestera berau ulertzeko eta hautemateko modua alda daiteke. Izan ere pertsonen artean sortzen diren aipatutako harreman ezberdin horien, beraien artean komunikatzeko duten sistematizazioaren, lotura eta kohesioaren eta beste hainbat faktoreren arabera izango baita. Medina Rivillaren (1992) ustez, elkarreaginezko ekintza eta elkarrizketa hauek dira eskola bateko giroaren esentzia. Gainera, ezaugarri hauek guztiek baldintzatuko duten giro horren arabera izango da, neurri handi batean, bertako langileek sentituko duten asebetetzea ere.

Orain artean aipatutakoaren ildotik, Hernández- Castilla et al. (2013) aurrera emandako ikerketan eskola bateko giroa eta bertako subjektuen arteko harremanak zuzenki lotuta daudela frogatu zen, klima egoki bat izatea eskola arrakasta lortu ahal izateko faktoreetako bat dela frogatuz. Izan ere, eskola bateko kliman tentsioa nabari denean, irakasleen, ikasleen eta familien arteko komunikazio eta ongi izatean zuzenki eragiten zuela ikusi zen. Horregatik, pertsonen arteko harremanek, talde lana, adostasunak, inizatiba, jakinduria eta espektatiba trukea, gatazkei aurre egiteko modua eta beste hainbat jokaera baldintzatuko dituzte.

2.4. Harremanak eta eskolako kultura

Era berean, klimak eta zentro bateko beste hainbat ezaugarri, hala nola erritual, prozedura, balore eta arauak, eskola horretako kultura osatzen dute. Nahiz eta eskolako

kulturaren definizio bat ematea erraza ez den, Eliasek (2015) zentro bateko kultura, zentro horretan gauzak nola egiten diren adierazten duen kodigo informal bat dela dio.

Stolpen (1994) arabera, zehaztaperen orokor gisara historian zehar transmititu diren eta eskola komunitatea osatzen duten pertsonen onartu eta ulertu dituzten arau, balore, sinesmen, zeremonia, erritual, tradizio eta mitoek osatzen dutela esan daiteke eskola bateko kultura. Eta ondorioz zentro bateko kultura bertakoa bakarrik dela esan daiteke, hau da, eskola bakoitzak berezkoa den kultura bat izango duela. (Waller, 1932).

Beraz, eskolako kultura arau eta tradizio ez idatzi batzuek osatua dago eta arau eta itzaropen hauek ekintza guztietan eragina dute; jendearen jokabidean, janzkeran, hitz egiteko gaietan, beraien kideengan laguntza bilatzen duten ala ez, eta noski, baita irakasleak nola sentitzen diren beraien lan eremuan ere. (Elias, 2015)

Beraz, esan genezake, kulturaren ondorioz, zentro baten eta bestearen izaera erabat ezberdina izango dela, baita zentro horretako partaide bakoitzak bertan izango duen jarrera eta jokatzeko modua ere.

Eskolako kulturaren eragina izango duten beste ezaugarriak eskola bakoitzarenak diren bereizgarri propioak izango dira. Hauek garrantzia handia izaten dute, eta eskola bakoitza kokatutako testuinguruaren arabera ulertu behar baita. Horrela bada, eskola hori dagoen herriak, bertako erlijioak, egoera sozioekonomikoak, ekonomia jarduerak... eragin zuzena izango dute.

3. ESKOLA TXIKIAK: Espazio txikiak baina aukera handiak

3.1. Zer dira eta nondik datoz?

Eskola txikiak Euskal Herriko hezkuntza sistema publikoak aurrera eramandako egitasmo pedagogikoaren baitan kokatu behar ditugun hezkuntza egitasmoak dira. Haien ezaugarri nagusia zera da: herri txiki eta landa eremuan kokatzen direla. Hauek beren hastapenetan oso eskola kopuru txikiak osatzen zuen taldea sortu zuten baina urteak aurrera egin ahala gero eta eskola gehiago elkartzen joan ziren, gaur egungo 51 eskolek osatzen duten sarera iritsi arte. Kasu honetan, Ikaztegietan kokatutako Eskola Txikia dugu

aztergai. Hau Gipuzkoan dago kokatuta, ezaugarri berdinak dituzten gainerako 26 eskolen antzera.

Historiari begiraturaz, Eskola Txikiek sortu ondorengo urteetan garai gogorrek igaro behar izan zituztela ikusten dugu, 1970. urteko Ley General de Educación delakoaren ondorioz desagertze arriskuan egon baitziren. Hala ere, eta zorionez, ondorengo urteetan indarrean jarri zen LOGSE legeari esker bizirik iraun eta indartzea lortu zuten. Gainera, geroztik eskola txiki asko beraien artean elkartzen eta koordinatzen hasi ziren, beraien garrantzia aldarrikatzeko asmoa izateaz gain, arazoak plazaratu eta irakasleen formazio eta koordinazioa bultzatu nahi zutelako.

Beraien bizi- iraupenagatik urte askoan zehar borroka egin ondoren, gaur egunera arte iritsi dira, bateratu eta indartuta, gainera.

Geure aztergaia den Eskola Txikiaren bereizgarri eta ezaugarriak ulertzeko, jatorria eta sortu ziren garaiko testuingurua ezagutzea beharrezkoa da, aurreko puntuan aipatu modura honek eskola horretako giro eta kulturaren zuzenki eragingo baitu. Esan daiteke, Eskola Txiki hauek nekazal eremuetako herri txikietan sortu zirela, bertako haur eta familiek zituzten beharrei erantzun bat emateko asmoz. Gainera, eskolak herrian bizi direnak integratzeko eta herritar sentiarazteko baliabide bat ere badira.

Eskola Txikietan berezko beste ezaugarri bat eskola herrian txertatuta egotea da, eta haurrek komunitateko kide garrantzitsuak direla sentitzen dute, eskolak herriko bizitzan parte hartzen duelako; baserria ikerketa zentroa izan daiteke, eta herriko albistek eskolako gai gisa erabil daitezke. (Lakuntza, 2009, 9.or)

Hau gaur egungo errealitatera ekarriz, nekazal- inguruetara gero eta familia berri gehiago etorri direnez bizitzera, eskolak familia horiek integratzeko paper garrantzitsu bat jokatzeko du. “Herri txiki horrek funtzionatzeko ohitura batzuk ditu eta familia berriek egoera horretara egokitu behar dute. Eskola horretarako laguntzaile ona izan daiteke.” (Castaños, 2005, 15.or)

Era berean, Lakuntzak (2009) kanpotik datorren ikasle horrek euskara ikasteko baliabide gokiak eskaintzen dituela dio Eskola Txikiak.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi azken urteotan kanpoko familia ugari etorri direla herri txikietara bizitzera, eta eskolak haiek bertakotzeko lana egiten duela. Kanpotik etortzen

diren haurrak oso erraz integratzen dira, eta euskara ere oso erraz jasotzen dute, herriko eta eskolako hizkuntza delako, eta gainera, oraindik ere herri horietan kalean jolasteko ohitura handia dagoelako. Harremanak eta hizkuntza hobetzeko aukera ematen die horrek. Hizkuntza ere ez da nolana hikoia, euskara aberatsa erabiltzen da, eta, kanpotik datorrenak, eredu ona jasotzen duenez, horrela ikasten du. (Lakuntza, 2009, 10.or)

3.2. Bereizgarriak diren ezaugarriak

Eskola txikiek gainerako eskolengandik bereizten dituzten hainbat ezaugarri dituzte. Horien artean ikasgeletako adin aniztasuna aipa daiteke. Izan ere, ikasleak ez dira adinaren arabera taldekatzen, maila edo zikloka baizik. Hori ez da arazo suertatzen ordea, eskola bakoitza komunitate txiki bat delako, non ikasle bakoitzak bere ikasketen protagonista izanik besteekin ikasten duen, batzuetan gehiago dakitenekin eta besteetan gutxiago dakitenekin. Horrela, haur bakoitzak bere rola aldatzeko aukera izango du, urte batean txikiena dena hurrengo batean handiena izango baita.

Pentsatzekoa da, talde txikiak diren neurrian, haur bakoitzaren beharrei eta aniztasunari gertutik erantzuteko modua duela Eskola Txikiak. Aniztasuna eskola txikietan asko erabiltzen dugun hitza da; adin aniztasuna ona da, ikasleen aniztasuna ona da... Hezkuntza pertsonalizatuaren bidean egiten da lan, ahal baldin bada bakoitzak ibilbide propioa egin dezan. Lehen aipatutako estrategia ere, ikasle guztiak irakasle guztienak izatea, helburu horretan sartzen da. Lortu behar duguna da denek abilitade eta gaitasunak lortzea mundu honetan aurrera egin ahal izateko. Baina, hortik aurrera, bidea ikasle bakoitzak egin behar du. Horrela esanda erraza dirudi eta ez da, baina Eskola Txikiak baditu eskola ideala izateko ezaugarriak, tamainak berak ematen dizkigunak. (Goñi, 2018, 9.or)

Honek, ikasleen gurasoengan ardura sortzen duela dio Gipuzkoako eskola txikietakoko guraso elkarten koordinadorako lehendakaria den Castañosek (2005). Orokorrean kezka handiena beraien haurrek institutura joatean nahikoa maila edukiko al duten izaten da. Horren aurrean mezu lasaigarria zabaltzen du Castañosek.

Nik uste dut eskola txikietan kalitatea badagoela. Seme- alabak institutura joaten direnean beste ikasleen antzera ibiltzen dira. Ez hobeto eta ez okerrago, besteak bezelatsu. Maila horretan ez dut uste aldaketa handirik dagoenik. (Castaños, 2005, 15.or)

Eskola txikietan lan egiten dutenek adin elkartze honek onura ugari ekartzen dituela diote, adin ezberdinetako ikasleak elkartzean, beraien arteko interakzioa aberastu

egiten dela eta hauen artean pentsaera, estrategia, bizipen eta jarrera anitzagoak sorrarazten direla defendatuz.

Gainera, modu honetan, ikasleen artean sortzen diren harremanak errealagoak dira, beraien arteko kooperazioa indartzen eta konpetitibitatea ahultzen baitira, elkarrengandik eta elkarrekin ikasteko aukerak areagotuz, eta inklusioari bideak zabalduz.

Kooperazioa denenak diren helburuak lortzeko elkarrekin lan egitean oinarritzen da. Egoera kooperatibo batean, subjektuek beraiantzat eta gainerako taldekideentzat onuragarriak diren emaitzak lortzeko ahalegina egiten dute. Ikaskuntza kooperatiboa partaide mugatuko talde bateko ikasleek elkarrekin lan egin eta beraien eta gainerakoen ikaskuntza ahalik eta handiena izatea bilatzen duten erabilpen didaktikoan oinarritzen da. Metodologia hau konpetentzian oinarritutako ikaskuntzaren aurkakoa da, bertan ikasle bakoitzak bere emaitza eta arrakasta lortzeko lan egiten baitu, indibidualismoan oinarrituz. (Johnson, Johnson, Holubec, 1994, 5or)

Era berean, Goñik (2018) ere kooperaziorako bideak benetan adin aniztasunaren bidez ematen direla dio, eta ez adin berdinekoak elkartzen direnean. Izan ere, ikasgela batean adin berdineko ikasleak ditugunean, badago dagoeneko ezaugarri homogeneousatzaile bat, adina bera, eta horrek automatikoki dakar ikasmila. Eta ikasmilak automatikoki dakar gauza batzuk jakin beharra, hor kooperatzea eginkizun zail bihurtuz, kooperatzeko baldintza batzuk behar baititugu eta hauek adin aniztasunean errazago ematen baitira.

Bestalde, lan egiteko metodologia ezberdin bat ere erabiltzen dute, proiektuka lan eginez. Metodologia honetan ez dute testuliburu bidez ikasten, hauek adin aniztasun horri egokia ez den erantzun bat emateaz gain, informazio mugatu eta partziala eskaintzen baitute.

Ondorioz gaitasunetan oinarritutako metodologia propioan oinarritzen direla esan daiteke, testuinguruari egokitutako proiektuen bidez lan eginez, elkarreraginean. Ebaluazioro proiektu zehatz baten baitan lan egiten dute ikastetxean, guztiek gai horren inguruko lanketa zehatz eta bateragarri bat eginez.

Horretarako, Laizek (2009) aipatzen duen moduan, ikasleen interes eta gustuetatik lan egitea beharrezkoa da. Bere arabera, ikasleen interesean oinarritutako ikaskuntza da

funtzionaltasuna duena. Eta irakaslearen egin beharra funtzionaltasun hori bilatzea da, horretarako ikasliburuak ez diren beste baliabide batzuk erabiliz.

Ikasliburu batek eskaintzen duen informazioa mugatua eta partziala da. Haurren ikasliburuak benetako testuak izan behar dute, gizartean erabiltzen direnak, egunkariak eta horrelakoak. Eta nola ez, internetetik jaso daitekeen informazio guztia. Honetarako haurren interesak ezagutu behar ditugu, galdetu egin behar diegu, behatu egin behar ditugu, entzun behar diegu... Eta askotan honek guztiak ez du zerikusirik izaten eskolan eskaintzen diegunarekin. (Laiz, 2009, 16.or)

Bestalde, proiektuka lan egiteak irakasleen arteko erabateko koordinazioa eskatzen du, baita beraien artean harreman sendoak izatea ere, hauek lan bateratu bat egiteko behar beharrezkoa baita. Horregatik, arlo eta maila guztitako irakasleek norabide berdinean eta elkarren lana nondik doan jakinez jardun behar dute, talde lanean.

Indibidualismoaren aurka borrokatu behar da. Hil da irakaslea; gora irakasle- taldea! Bakarrik gelditzen den irakaslea, nazkatuta bakarrik hilko da. Gaur egun, XXI. Mendean, isolatutako irakasleak ez du funtzionatzen. Eskola ez da norbanakoa, irakaslea talde bateko kide da. Horrek salbatuko du lanbide hau XXI. Mendean. Talde- lana nahitaezkoa da. (Imbernón, 2018, 24 or.)

Honetaz guztiaz gain, ikasgeletako eta eskoletako ikasle kopuru murriztu horrek eskaintzen duen beste aukeretako bat ikasle guztiak “irakasle guztienak” izatea da. Nahiz eta ikasle bakoitzak bere erreferentea izango den irakasle tutorea izan, irakasle guztiek sentitu behar dute eskolako ikasle ororen ongi izatea bere ardura dela. Horregatik, Laizek (2009) aipatzen duen moduan, beraien mintegietan horren inguruan lan asko egiten da; irakasle guztien ardura baita ikasle denek funtsezko gauza horiek ikastea. Bere ustetan, irakasleak mintegietara joaten hasi zirenetik, ilusioa topatu zuten berriz.

Horrela bada, Eskola Txikiek bereizgarri egiten dituzten aipatutako ezaugarri hauengatik (beste hainbaten artean), jasotzen dituzten irakasleen arteko formazio horietan beraien arteko harreman eta lanak nola hobetu ditzaketen aipatzen zaizkie, baita beraien lanean hobetzeko aholku eta gomendioak eman ere.

Beraz, ez dute zalantzarik egiten, gizarteak etengabe eskatzen duen moduan, maisu- maistra onak izan behar dutela. Horrexegatik, adituekin formatzen saiatzen dira, eta gaur egungo ikerketa eta teorien inguruan etengabe hausnartzen dute, euren praktika

beti teoria eta ikerketa horiekin alderatuz. Izan ere, konturatu dira formazioarekin ez dela nahikoa baldin eta formazio hori ez badute alderatzen egunero egiten dutenarekin.
(Laiz, 2017, 14 Or)

II. ATALA: HELBURUAK

Aurkezten dugun lan honen helburu nagusia Ikaztegietako eskola txikiko irakasle talde baten harremanen analisia egitea da.

Horiek horrela, lan honek baditu bestelako helburu zehatzagoak ere:

- a) Irakasleen arteko harremanek irakaskuntza ikaskuntza prozesuetan duten garrantziaz jabetzea.
- b) Irakasleen lanbide garapena aintzat hartuta harremanen inguruan dituzten pertzepzioak ulertzea.
- c) Irakasleen arteko harremanek eskolako gainerako prozesuetan duten eragin maila ezagutzea.
- d) Eskola Txikiak espazio txikiagoak eta ikasle kopuru txikiagoak dituzten neurrian harremanen erraztaile diren bai edo ez aztertzea.

III. ATALA: METODOLOGIA

Gizarte zientzien esparruan kokatuta dagoen lan bat izanik metodologia kualitatiboa lehenetsi dugu. Irakasleekin elkarrekintzan sortu dugun lan bat da eta hori neurri handi batean haiekin eraiki ditugun harremanei esker izan da. Modu berean esan behar da metodologia kualitatiboa baliatu dugula irakasleen esperientzia eta bizipenak ezagutu eta haiek interpretatu nahi izan ditugulako. Orientabide metodologiko honen helburua da giza esperientziaren mundu konplexua ulertzea: nola bizi diren pertsonak, nola esperimendatzen duten, nola interpretatzen eta eraikitzen dituzten gizarte-munduaren

esanahiak, eta nola txertatzen diren esanahi horietan gizarte-aktoreen kultura, hizkuntza eta ekintzak.

Ildo honetan, Denzin eta Lincolnentzat (2012) metodologia kualitatiboa zera da:

La investigación cualitativa es un multimétodo focalizado, incluyendo interpretación y aproximaciones naturalistas a su objeto de estudio. Esto significa que los investigadores cualitativos estudian las cosas en su situación natural, tratando de entender o interpretar los fenómenos en términos de los significados que la gente les otorga. (Denzin, Lincoln, 2012, 2 or.)

Gure ikerketa aurrera eramateko, beraz, ikerketa kualitatiboaz baliatu gara, Flickek (2012) aipatu modura, bizidunen munduan azken urteetan pluraltasun izugarri bat eman denez gizarte harremanak aztertzeko orduan adierazgarritasun handia hartzen duelako. Honen ondorioz, arazoen azterketa enpirikoak egiteko orduan sentikortasun berri bat erabili behar da. Garaiak aldatzearekin batera, aztergaiak eta ikerketak aurrera eramateko moduak ere aldatu egiten dira: “La era de las grandes narraciones y teorías ha pasado: en la actualidad se requieren narraciones limitadas local, temporal y situacionalmente.” (Flick, 2012, 15 or.)

Beraz, esan daiteke ikerketa kualitatiboan, lekuko eta denborako bereizgarriak dituzten kasu zehatzak aztertzen direla, subjektuak kontestu horretan dituzten jarduera eta adierazpenak oinarritzat hartuta:

Por tanto, los campos de estudio no son situaciones artificiales en el laboratorio, sino las prácticas e interacciones de los sujetos en la vida cotidiana. Aquí, en particular, se estudian con frecuencia situaciones y personas excepcionales (Flick, 2012, 19 or.)

Horrela bada, modu honetan ikerketan inplikaturakoen parte hartzea areagotzen da, berdinen arteko harreman bat bultzatuz. Ondorioz, ikerketa kualitatiboak parte-hartzaileekin batera gauzatzen dira, eta parte hartzaileei esker eramaten dira aurrera. Gainera, Parrilla eta Sierrak (2015) esan zuten moduan, ikerketa hau irakasleei ere onuragarri suertatzen zaie, bertan ateratako emaitzei esker beren lanean hobetu eta ongi izatea bilatzeko giltzak azaleratzen baitira.

Hau guztia gure ikerketa gaira ekarriz, irakasleak denbora eta leku zehatz batean izan ditugu aztergai, hau da, beraien lan ordue eta eremuan (eskolan) hain zuzen ere. Gainera, subjektua denez ikerketaren erdian kokatzen dena, irakasleen ahotsak entzun nahi izan ditugu, beraien bizipen eta iritzia aztertze aldera. Horregatik, beraien parte-hartzea ezinbestekoa izan da.

Bestetik, lan hau Ikaztegiako Eskola Txikian kokatu dugu. Beraz, kasu zehatz baten azterketa egin dugu. Metodologia kualitatiboaren aldaera bat, kasu erreal baten analisisa egitea da. Horiek horrela, lan honetan, kasu zehatz baten azterketa burutu dugu. Staken (1998) esanetan kasu baten azterketa, kasu berezi eta erreal baten berezkotasunaren eta konplexutasunaren ikerketa da eta testuinguru zehatz batean gertatzen diren interakzioen ezaugarriak bilatzen ditu. Kasua zerbait zehatza da, espezifikoa eta gertatzen ari dena.

De un estudio de casos se espera que abarque la complejidad de un caso particular. Estudiamos un caso cuando tiene un interés muy especial en sí mismo. Buscamos el detalle de la interacción con sus contextos. El estudio de casos es el estudio de la particularidad y de la complejidad de un caso singular, para llegar a comprender su actividad en circunstancias importantes. (Stake, 1998, 11 or.)

Lan hau burutzeko berriz baliatu dugun teknika sakoneko elkarrizketa izan da (ikus eranskinak). Elkarrizketa hauen bitartez garatu da gure eta irakasleen arteko hartumana. Gainera, antropologiaren irizpideei jarraiki eta irakasleen bizipen eta pertzepzioei lekua eskainiz haien errealitatean arakatzeko hautua egin dugu, elkarrizketaren bidez haiekin komunikazioa finkatu eta haiek bizi duten hezkuntza errealitatea ulertu eta aztertzeko; ondoren narratibak sortuz.

Ikerketa kualitatiboaren esparruan elkarrizketa teknika bezala asko erabilia izan da (Flick, 2012). Aipatu teknika hau oso balioetsia da gai edota ataza desberdinen inguruan informazioa jasotzeko. Bi pertsonen artean gertatzen den elkarrizketa bat da, non batek, ikertzaileak kasu honetan, galdera zehatz batzuk proposatzen dituen eta elkarrizketatuak erantzun egiten ditu. Aitzitik, galdetzen denean, ez zaio soilik erantzunari arreta eskaintzen, elkarrizketatuak prozesuaren zehar agertzen dituen

bestelako elementuak ere kontuan hartzen saiatzen da (egoteko modua, hizkera, ezkutuko hizkera, elkarrizketaren zehar sortzen den giroa...). Gure kasuan lan honetan elkarrizketak komunikazio fluxu sakonak eraiki nahi izan ditu, irakasleen esperientzia eta praktikak ezagutu nahi ditugunez oso inportantea izan da elkarrizketa hauen prestakuntza, burutzea bera eta ondorena. Batez ere interes berezia jarri diogu irakasleak elkarrizketaren zehar eroso sentitzeazteari eta horretarako konfiantza espazio esanguratsuak eraikitzen saiatu gara.

3.1. TESTUINGURUA ETA PARTE HARTZAILEAK

Honako GRAL hau Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dagoen herri txiki bateko eskola publiko batean garatu da. Ikastetxe horrek, HH eta LH etapak barne hartzen ditu.

EUSTAT-eko 2019ko datuen arabera, 506 biztanle zituen herriak urte horretan eta hauetako %21,15a 0-19 urte bitarteko haurrak ziren.

Ikastetxeari dagokionez, arestian aipatu bezala, eskolak izaera publikoa du eta herrian dagoen eskola publiko bakarra da. Haur zein Lehen Hezkuntzako etapak barne hartzen ditu, lerro- bakarreko ikastetxea izanik. Ikastetxeak 66 ikasle inguru ditu eta 10 irakasle, horietako guztiak ez dutelarik lan jornada osoa bertan egiten. Bertara joaten diren ikasle gehienak Ikaztegietan bizi diren haurrak dira, nahiz eta inguruko herrietako haur batzuk, hala nola Baliarrain edo Orendaingoak ere joaten diren.

Ikerketa honen interes gune zein sorburua, Hezkuntza Antropologia eta Filosofiako Fakultateko Lehen Hezkuntzako Graduako lehen urteko praktikak ikastetxe honetan egin izanak eta ni herri horretako biztanlea izateaz gain, ikastetxe horretako ikasle ohia izatea dira. Gauzak horrela, testuinguru honetan lan egiteko garaian irakasleek lankideen arteko harremanaren inguruan duten pertzepzioa, honen garrantziaren ustea eta jarrerak aztertzea bilakatu ziren ikerketaren helburu.

GRADU AMAIERAKO LANA

Aipatu modura, banakako elkarrizketetan guztira lau profesionalek parte-hartu zuten. Ondorengo taulan bakoitzaren datuak eta erreferentzia kodea ageri dira.

III. Taula: Ikerketan parte hartu duten irakasleen informazioa

ERREFERENTZI KODEA	ESKOLA	ALDAGAIK	ADINA	ZENBAT URTE IRAKASLE	ZENBAT URTE IKASTETXEAN
A1	OINARRIZKO ESKOLA	MUSIKA IRAKASLEA	44 URTE	15 URTE	4
A2	OINARRIZKO ESKOLA	HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEA	38 URTE	14 URTE	1
A3	OINARRIZKO ESKOLA	_____	_____	_____	1
A4	OINARRIZKO ESKOLA	_____	_____	_____	1

Taula: Geuk egina, 2020

3.2. TRESNAK ETA PROZEDURA

Helburu honen lorpenerako izaera kualitatiboa duen eta sakoneko elkarrizketak tresna gisa erabili dituen ikerketa lana diseinatu da. Horretarako, lehenik eta behin ikerketa gauzatu dugun eskolara deitu eta beraiekin jarri ginen harremanetan. Gure proiektuaren berri ematean bertaratzeko gonbita luzatu ziguten, aurrez aurre hobeto azaltzeko helburuz. Beraz, zuzendariari ondo zegokion egun batean bertara joan ginen zein zen gure asmoa eta zer egin nahi genuen azaltzera. Zuzendariak, guztia adi entzun eta eskolako klaustroan ideiare berri emango zuela esan zigun. Egun gutxi batzuetara eskolako deia jaso genuen bueltan, klaustroan komentatu eta lau irakasle prest agertu zirela gurekin lan egiteko esanez. Beraz, berriro eskolara joan eta irakasle horiekin hitz egin genuen, beraiei zuzenki ikerketaren gaia eta helburuak azaldu eta elkarrizketak egiteko ondo etortzen zitzaien egunean zita ezarri.

Lau irakasle horiek ordutegi ezberdinak dituztenez, guztiekin egun berean elkartzea ezinezkoa zen. Beraz, lehenengo egunean bi irakaslerekin eta hurrengo egunean beste birekin elkartu ginen. Honen guztiaren aurretik, EHUko Batzorde Etikoaren

argibideak zein protokoloa jarraituz, baimena eskatu zitzaion ikastetxeko zuzendariari (ikus 1.eranskina), ikerketaren nondik- norakoak ongi azalduz.

Behin zuzendariaren oniritzi eta baimena izanik, ikerketan parte- hartzeko prest agertu ziren ikastetxeko irakasleekin harremanetan jarri ginen, hauei berriro ere ikerketaren nondik-norakoak azalduz eta beraiek elkarrizketatzea baimentzen zuen dokumentua luzatuz. Baimen horretan argi uzten zen elkarrizketan zehar esandako guztia anonimoa eta konfidentziala izango zela, baita ikerketaren helburu nagusia euren sentimendu, bizipen eta iritziez gehiago jakitea zela eta ez inondik inora euren lana epaitzea. Guztiak ados agertu ziren baimenean jartzen zuenarekin, eta elkarrizketak egiteko egunerako sinatuta itzuli zizkiguten. Horretarako, elkarrizketatua izan zen pertsona bakoitzari baimena paperean eman zitzaion (Ikusi 2.eranskina).

Elkarrizketa hauetan konfiantza giro eta enpatia bultzatzen saiatu ginen etengabe, irakasleei beraien uste eta bizipenak lasai eta presiorik gabe kontatzeko eremu bat eskainiz. Horretan laguntzeko asmoz, elkarrizketan zehar oinarritzat hartuko genuen gidoia (Ikusi 3.eranskina) elkarrizketa eguna baina lehen eman genien, beraiek lasai irakurri ahal izateko. Gidoi hau justifikazio teorikoan jorratzen diren gaiak oinarri hartuta sortu genuen, hiru bloketan sailkatuz.

Elkarrizketak audioan grabatu ziren eta ondoren transkribapenak egin ziren, azkenik informazioaren azterketa kualitatiboa eginez.

Sakoneko elkarrizketa guztiak amaitzean, gure ikerketaren bigarren zatia izango zen argazkien narratiba egiteko elkarrekin kontaktuan mantendu eta zita bat hitzartuko genuela erabaki genuen. Baina sarreran azaldu modura, COVID- 19 pandemiaren ondorioz, eskola guztiak itxi zituzten, ezinezko bilakatuz berau aurrera eramatea. Gainera, irakasleekin ezin zenez kontaktu zuzena izan, korreo elektronikoko bidez jarraitu genuen harremanetan, beraiei ere azken atal hau ezingo genuela burutu adieraziz (Ikusi 4. eranskinak).

IV. ATALA: EMAITZAK

Jarraian lan honen emaitzen atala aurkeztari ekingo diogu. Horretarako sistema kategoriala baliatu dugu (Flick, 2012). Alegia, lan honen emaitzak aurkezteko hainbat analisi unitate identifikatu ditugu. Irakasleen harremanei leiho desberdinetatik begira dakieke. Harremanak ulertzeko eta haiek interpretatzeko ertz desberdinak aintzat har genitzake. Guk, irakasleekin burutu dugun landa lanaren datuon lehen analisi batean batzuk lehenetsi ditugu gure ustetan erabakiorrak direlako. Horretarako esan behar da ikerketa hau abiatu genuenean propioki analisisira hainbat unitate finkatu genituen.

Flick (2012) aburuz analisi unitate esanguratusak zera dira: ikertzaileak eskuartean dituen datu denak kontuan hartuta haien artean garrantzia edo esangura berezia duten haiek, ikerketa objektuarekin lotura espezifikoa dutelako batetik edota ikerketan zehar aurreikusi gabeko analisi unitateren batek gain hartu duelako eta bere esanahiak errepresentagarritasuna izan dezakeelako bestetik.

IV. Taula: Ikerketa lan hau egiteko zehaztu ditugun analisi unitateak

ANALISI UNITATEAK	
1.1 ANALISI UNITATEA	<p>Irakaslearen pertzepzioak bere lanbidearen inguruan: Irakasleak bere lanbidearen inguruan uste duena aztertu.</p> <p>1.2 Irakasleak eta familien arteko harremanak</p> <p>1.3 Irakaslea bidelagun</p> <p>1.4 Irakaslearen poz eta ondoezak</p>
2.1 ANALISI UNITATEA	<p>Harremanen garrantzia: Irakaslearentzat harremanak zer diren eta bere lanbidean zer garrantzi duten behatu.</p> <p>2.2 Harremanak eta espazioa</p> <p>2.3 Lan- jardunaren mugak</p> <p>2.4 Harreman informalen onurak</p> <p>2.5 Harremanetan eragina duten faktoreak</p>

3.1 ANALISI UNITATEA	Eskola Txikiak: Irakasleentzat, bere bereizgarriengatik haien arteko harremanak hobetzen laguntzeko elementuak ote dituen ikertu. 3.2 Harremanak eta eskolako klima eta kultura
-------------------------	---

Taula: Geuk egina, 2020

1.1 ANALISI UNITATEA: Irakaslearen pertzepzioak bere lanbidearen inguruan

Lehenik eta behin irakasleei beraien lanaren inguruan duten iritzia galdetu zaie. Izan ere, irakasle funtzioa denboran zehar, eta nagusiki azken urteetan, izugarri aldatu denez, batzuen ustez irakasle eta ikasleen arteko harremanak ere errotik aldatu dira, horien arteko goxotasuna areagotuz; orain ikaslea gehiago entzuten da, gehiago zaintzen da:

A1: “Lehen irakasleak erakutsi egiten zigun, orain badago goxotasun gehiago. Orain gauza gehiago begiratzen dira; etxeko lanak ez baditu haur batek egin, zergatik ez dituen egin begiratzen da, zergatik dagoen triste... Nik uste orain harreman horietan sentimenduak, enpatia... askoz ere gehiago lantzen ditugula, umea gehiago babestuz eta zainduz. Orain ere edukiak eta kontzeptuak lantzen saiatzen gara, baina beti ere beraiekin harremana izanez eta beraien beharrak... kontuan edukiz. ”

“Ebaluatzeko modua ere aldatu da, lehen edukiak neurtzen ziren bezala, orain konpetentziak neurtzen ditugu, eta konpetentziak neurtzeko orduan jarrerari askoz ere garrantzia gehiago ematen zaio. Beste gaitasun batzuk hartzen dira kontuan; ez da lehen bezala “badaki” edo “ez daki”, orain beste gauza batzuk izaten ditugu kontuan.”

A2: “Irakasleak orain ikasleen ongi izatea bilatzea, beti ez materialen kognitiboki aurrera egitea, baizik eta batzuetan afektiboki; beraiei estabilitate, goxotasuna... ematea. Gehiago harreman aldetik. Lehen irakaslea hor zegoen, puntu batean, eta gaur egun nik uste ez gaudela hain urrun, hain autoritario, eta umeek gertuago sentitzen gaituztela. Hemen denak askoz gertuagokoa izan behar du, eta familiek ere horrela eskatzen dute. Azkenean horren gutxi izanda askoz gehiago eman behar duzu harreman aldetikan.”

A3: “Orain irakaslea gehiago da bidelagun bat. Beraiei interesatzen zaien horretatik abiatuta edukiak lantzen saiatzen gara.”

1.2. Irakaslea eta familien arteko harremana:

Familiaren gaiari dagokionez, sarri hauen esku- hartzea mugatzea zaila dela diote, eskolan sartu eta beraiei ez dagozkien erabakiak hartzeko joera baitaukat.

A1: “Harreman hori izaten utzi behar diegu, gertutasun hori adieraziz. Beti ere muga batekin, batzuetan gurasoei ahaztu egiten baitzaie non dagoen muga hori”.

A2: “Familiekin gertukotasuna oso garrantzitsua da, nahiz eta neurria jartzen ez den erraza. Askotan agobiatu egiten zaituzte, denak batera etortzen direlako eta dena kontatu nahi dizutelako eta ez dakizulako nola kudeatu hori, baina nire ustez ezaugarri oso positibo bat da”.

A4: “Mugak jartzen ikastea beharrezkoa da. Ze guraso batzuk, berez dagoeneko, muturra sartzeko joera dute, eta bidea ematen badiezu akabo. Batzuei eskua eman eta besoa hartzen dizuete. Asko esaten da gurasoak eskolan sartu baina kontuz. Hori oso polita da baina asko uzten badiezu, zure lana nola egin behar duzun ere esaten dizuete”.

1.3. Irakaslea bidelagun:

Lehen irakasleak informazioa banatzen zutenak baziren ere, gaur egun informazio eta teknologiaren gizartean bizi garenez, gain informazioarekin topatzen garela diote. Horren aurrean, irakasleak ikasleei informazio horretan sailkapenak egiten eta zer den baliozkoa eta zer ez bereizten irakatsi behar dietela diote. Gidari lana da orain irakasleek egiten dutena.

A3: “Gure papera (irakasleena) erabat aldatu da. Guk bideratu egiten ditugu, neurri batean argi eduki behar dugu, ikaslea nora nahi dugun iristea kompetenteak izateko, baina gehiago gidari lana egiten dugu.”

A4: “Garai batean edukiak transmititu behar zituzten, eta gaur egun, dagoen guztiaren artean zer den bilatu behar dutena erakutsi behar zaie. Adibidez interneten. Zer informazio da balio duena, zer aztertu behar dut, nola jarri behar dut... Gain informazio bat dago eta informazio horren aurrean kritiko izaten ikasi behar dute.”

Egiten duten hori zergatik egiten duten galdetzean, haurrak gaur egungo gizartean kompetente izateko eta beraien ongi izatea bermatzeko egiten dutela diote.

A2: “Familiaren eta batez ere haurraren ongi izatea bilatzen delako.”

A3: “Ikasi ahal izateko. Umea kompetente izatea. Bizitzako errealitatearen aurrean arazoei aurre egiteko gai izateko.”

Funtzioa aldatzearekin batera, irakasle lana burutzeko modua ere errotik aldatu dela diote. Funtzio horren baitan, Ikaztegietak eskolara etorriz, badituela eskola honek gainerako eskolengandik bereizten dituen berezitasun batzuk aipatu dituzte. Izan ere, duela urte gutxitik hona, proiektuen bidez lan egiten da. Honek ondo funtzionatzeko, guztiak irakasleen arteko harreman eta koordinazioaren garrantzia aipatu dute.

A1: “Proiektu baten inguruan lan egiten dugu, hori da gure berezitasun nagusia. Eta proiektuko gai horren inguruan lantzen saiatzen gara guztia, irakasleen arteko koordinazio bat emanez. Arlo guztiak, interdisziplinarrak ere badira.”

A2: “Proiektuka lan egiteak eta ikasle kopuru mugatua izateak, ikasle guztiei gainerakoei egin dituzten lanak plazaratu ahal izateko aukera izatea ahalbidetzen zaie, horrela gainerakoenganako errespetu eta enpatia landuz. Hau eskola handietan ezinezkoa da.”

A3: “Proiektu baten inguruan lan egiten dugunez, oso koordinatuta lan egiten dugu; astero biltzen gara proiektuari bere norabidea emateko.”

“Oso talde txikiak izanik, ikasle kopuru altuekin egin ezin nituen lan eta ariketak egiteko aukera ematen dit.”

Batzuek ordea, beraien arteko koordinazio horretan gabeziak daudela aipatu dute.

A4: “Irakasleak bere lana taldean eta erabakitako gauzen arabera egin beharko luke, denok bide berdina jarraituz, baina tamalez batzuekin ezinezkoa da, beraiek beraien kabuz egiten baitituzte gauzak. Denok batera lan eginez gero, gure lanak zentzua hartzen du, denok norabide berean joateko aukera eskaintzen baitu; denok ebaluatzeko orduan helburu eta irizpide berdinak izateko”.

“Ikaztegietako eskolaren beste berezitasun nagusia, ikasle kopuruarena da, Eskola Txikia izanik, ikasle gutxiko taldeak baitaude. Horrek lan egiteko orduan hainbat aukera eskaintzen dituela adierazten dute.”

“Oso talde txikiak direnez, ikasleekin sortzen den harremana oso estua dela esango nuke, eta ondorioz printzipioz beraiekin lan egitea errazagoa izan beharko luke”

1.4. Irakaslearen poz eta ondoezak:

Ondoren, irakasleei beraien poztasunen inguruan galdetu zaienean, askok beraien poztasun nagusia ikasleak gustura ikustea eta beraien esfortzuak fruitua eman duela ikustea dela esan dute.

A1: “Pozak egunero lanera etortzea, umeak zurekin gustura egotea, gelako jarrera ona izatea, erantzutea, ikasteko gogoia dutela ikustea... horrek zure lana ondo egiten ari zarela esan nahi du. Beraiek pozik ikustea, patioan entzutea ze gustura egon diren edo zer ikasi duten. Horiek dira gehien bat.”

A2: “Gauza txikiak dira azkenean. Ikusten duzunean lanketa bat egiten ari zarela, eta bapatean aurrera egiten duela ikusteak sekulako poztasuna sortzen dizu.”

Beste batzuk, aldiz, Eskola Txikiak eskaintzen dituen aukerak aipatu dituzte, hala nola, ikasleak goxatzeko aukera izatea edota lankideekin sortzen diren harremanak.

A3: “Poz handiena umeak goxatzeko aukera izatea da.”

A4: “Lankideekin beste eskoletan baina harreman estuagoa dudala da. Hemen ordea, bazkaltzen geratzen zara eta azkenean beste tratua bat sortzen da. Gehienekin daukat, batenbatekin kenduta. Besteekin oso harreman ona izatera iritsi naiz, batzuekin lagun harremana ere. Badaude batzuk hemendik kanpoko denbora librean ditudan lagunekin baina harreman hobea egitea lortu dudala. Eta nik uste dut hori aberasgarria dela ikasleentzat”.

Bestalde, ondoez nagusitzat saiakera guztiak egin arren ikasle baten beharretara iristea ez lortzea dela esan dute, baita hainbatetan izaten dituzten denbora eta baliabide falta ere.

A1: “Ondoeza batzuetan ikasleren batekin ezin dugunean aurrera egin, zailtasunak dituelako, saiatzeko zailagoak izaten diren, eta ez dakizulako nondik heldu. Badakizu zer lortu behar duen baina ez dakizu nola lortu hori. Batzuetan gertatzen da”.

A3: “Nahi eta ezin hori. Ez nintzen iristen eta askotan oso mugatuta sentitzen nintzen edukietan. Nire lehengo ondoeza hori zen; umeak konpetenteak izatea nahi dugu, baina edukietan zentratzen ari gara eta ez naiz iristen. Baina eduki horiek landu behar nituen. Eta ezin nuen. Eta etxera askotan frustratuta iristen nintzen, umeak goxatu gabe nituelako, ez nuelako denborarik. Niretzako lehendabiziko gauza aurrena umeak goxatzea da, beraiek irakaslea gertu dagoela sentitzea, gidari modura eta ez jakintza iturri bezala.”

A4: “Askotan iritsi nahi duzun guztira iristea ezinezkoa dela da. Prestatu nahi duzun horretarako ez daukazu denbora bilerak, koordinazioa etab. dituzulako. Eskola txiki batean adibidez, astean dituzun eskola orduetan zure lanerako dituzun orduak ez dituzu, eta horrek eragiten dizuna da etxera lana eramatea. Gertatzen dena da murrizketak egon direla, eta ia baina irakasle eta erdi gutxiago dagoela. Eta horrek suposatzen du, eginkizunak banatu egin behar direla; bat falta bada, edo medikua badu, suposatzen da libre edo guretzako ordua dugun horiek ordezkatu behar diogula, eta horrek esan nahi du zure lanerako eta prestaketarako duzun denbora hori kendu egiten dizula. Zure lan pertsonalerako ez daukazu hainbeste denbora; beste eskoletan normalean espezialista sartzen denean, zuk zure lanerako aprobetxatzen duzu ordu hori, eta hemen gehienetan ez zait horrelakorik gertatu”.

2.1 ANALISI UNITATEA : Harremanen garrantzia

Harremani dagokienez, guztiak ados agertu dira harreman bat bi pertsona edo gehiagoren artean ematen den hartu- eman edota elkarrekintza bat dela adieraztean. Gainera, harreman horiek positiboak edo negatiboak ere izan daitezkeela adierazi dute, eta mota bakoitzak bere ondorioak uzten dituela.

A2: “Badaude harreman batzuk oso positiboak direnak, eta beste batzuk oso negatiboak direnak, ez dituzunak nahi zure inguruan. Harreman negatibo horiek zuri ere eragin egiten dizute”.

Ondoren, Ikaztegiako Eskola Txikian harreman mota ezberdinek duten garrantziaren inguruan galdetu zaie. Talde ezberdinen arteko harremanen inguruan aritu dira; adibidez gurasoekin dagoen harremana edo herriarekin.

A1: “Eskola Txikia izanda, beti da Herria -Gurasoak eta ikasleak osatzen duten hiruki bat. Irakasleok gurasoekin ere hartu- eman zuzena daukagu, egunero beraiek etortzen direnez umeak ekartzera, harremana izatea beharrezkoa da. Herriarekin hartu emanak ere izaten ditugu; ekintzak burutzen dira edo guk burutzen ditugu herriarentzat ekintzak, eta badago harreman hori. Udalarekin ere harreman zuzenagoa da. Herrian egiten diren ekintzetan parte- hartzen dugu. Adibidez “Tipi-Tapa²”-n, hilabetean behin beraiekin joaten gara. Ezagutaraztea da helburua. Azkena inauterietako ostegun gizenekoa. Gonbidapena zabaldu genion herriari txistorra jatera etortzeko. Saiatzen gara hori zaintzen.”

Bestalde, irakasleen arteko harremanen inguruan ere hausnartu dute:

A1: “Bai, gu azkenean oso eskola txikia gara, 10 irakasle gara, onerako eta txarrerako. Talde txikia izanda harreman estuagoa daukagu, eta hasarretzen bagara okerragoa da, azkenean bat hasarretzen bada bakarrik geratuko delako”

² Hilean behin adinekoekin batera herriko ibilbide ezberdinetatik ibiltzeko proiektua da

A2: “Oso oso gutxi izate horrek asko eragiten du, eta giroa negatiboa bada, ez dago zer eginik. Ikusi egiten da nolakoa den giroa”

A4: “Eskola txiki batean ez badago ekiporik (ez da talde, da ekipo), eta ez badugu guztiok norabide berdinean eta batera lan egiten, asko nabaritzen da. Koordinatuz, harremana izanez beste irakasleekin... ekipo baten modura lan egin behar dugu”.

2.2. Harremanak eta espazioa:

Behin irakasleen arteko harremanetan zentratuz, harreman tipologia desberdinei eta bakoitzak hartzen duen espazioari dagokionez, guztiak nahiko ados agertu dira espazio bakoitzari harreman mota zehatz bat esleitzean. Batetik harreman formalak aipatu dituzte:

A1: “Formalak azkenean klaustroa daukagunean zuzendaritzak bideratzen gaitu, zer egin behar dugun eta zer ez esaten digu, eta momentu horretan seriotasun piska bat erabiltzen dugu”.

A2: “Harreman formalak gehien bat bileretan ematen dira”.

A3: “Formalak irakasle gelan, mahaian eseri eta paper baten aurrean jartzen garenean koordinatzeko ematen dira, lankide moduan, “profesionalki”. Esertze hori niretzat garrantzitsua da”.

A4: “Formalak adibidez koordinazio bileretan ematen dira, baita klaustroan edota formakuntzetan ere.”

Bestetik harreman informalak ere aipatu dituzte, eta guztiak ados agertu dira bazkaltzeko ordua dela harreman informal horien unerik garrantzitsuena. Horretaz gain beste hainbat une ere aipatu dituzte:

A1: “Informalak adibidez patio zaintzan. Lau irakasle ateratzen gara, binaka egoten gara, esparru ezberdinetan, eta hori bai da informala, gure gauzetaz hitz egiten

egoten garelako. Baita zure saioa prestatzeko ordua duzunean eta norbaitekin batera zaudenean gelan”.

A3: “Goizean hamar minutu lehenago irakasle gelan sartu eta gure arteko gora beherak kontatzeko erabiltzen dugun tarte hori, adibidez. Komunera zoazen une horretan, edota patioan zaintzan gauden une horretan”.

A1: “Eguerdiro elkarrekin bazkaltzen dugu eta bertan elkarrizketa ugari sortzen dira; bai proiektu eta lanen ingurukoak, eta baita geure eskolatik kanpoko bizitzaren ingurukoak ere.”

A2: “Bazkaltzeko orduan asko sortzen da.”

A4: “Informalena bazkal orduan ematen da, eta bazkal orduak oso baliogarriak izaten dira. Nik hor hitz egiten dut asko proiektuko lanen inguruan: “Hau egiten ari zara? Ze ideia ona, ba nik beste hau egingo dut!”

2.3. Lan jardunaren mugak:

Badagoela bazkal orduan (eta ondorioz harreman informaletan) eragiten duen beste faktore bat ere esan dute; jornada murriztua izatea, aipatu dutenez jornada murriztuan dagoen irakasleak ez baitu egunero eskolan bazkaltzen. Gai honi dagokionez, ez da adostasunik egon beraien iritzian, batzuen ustez honengatik ikastetxean gertatzen denaren berri berdin- berdin izaten baita eta besteen ustez ez.

A2: “Adibidez, orain artean jornada osoan egon da bat ordezkapen bat betetzen, eta orain murriztuan dago, eta horrek ere asko eragiten du, orain harremana askoz gutxiago daukazu, pasiloetatik ikusten duzu, eta badijoa. Ni horrela egon naiz azkeneko urteetan, musikako irakasle bezala ibili bainaiz jornada erdian eta “zaude- eta ez zaude” harreman mota bat da, erdizkakoak dira. Hiru egunetan agertzen zara eta besteetan ez. “Pululatzen” ibiltzen zara, ez zara sekula informazioaren jakitun. Goizean agertu eta “emanaldi bat dago” edo beste ekintzaren baten berri ematen dizute, eta zuk sekula ez dakizu zer topatuko duzun. Ezjakintasun horretan zabilta, eta gauzak ez kontrolatzea ez da horren eroso suertatzen.”

A3: “Nik hasiera batean pentsatzen nuen zailagoa izango zela; jornada murriztuan egonda, une batzuk galdu egingo nituela pentsatzen nuen. Baina ez daukat sentsazio hori. Heren bateko murrizketa daukat, baina bi eguerditan geratzen naiz.

Gero adibide bezala, suertatzen dira gauzak. Igandean bertan Donostiako lilatoia zela eta, lankide baten lagunak atzera bota eta bakarrik geratu zen eta gurekin etortzeko esan genion. Elkarrekin atera ginen. Hemendik kanpoko ekintzak ere egiten ditugu.”

A4: “Ni aurreko ebaluaketan jornada osoan egon nintzen eta egunero geratzen nintzen hemen bazkaltzen. Orain jornada murriztua daukat, bazkarietan ez naiz geratzen eta asko eragiten dit horrek. Hor ateratzen direla ideia oberenak iruditzen zait.

Horregatik geratzen naiz ostiraletan batzuetan ni nire borondatez, bazkaltzera kanpora joan eta elkarrekin egoteko, hor gauza askoren inguruan hitz egiten dela jabetzen bainaiz. Saiatzen naiz hori mantentzen.”

Gainera, ostirala denez eguardian bi ordu libre dituzten egun bakarra, batzuetan kanpora joaten direla bazkaltzera aipatu digute. Guztiek ideia paregabea dela eta ekintza hau mantentzea garrantzitsua dela uste dute.

A1: “Astean behin edo bi astez behin, kanpora joaten gara eskolatik kanpo bazkaltzera, eta hori gure artean gustura gaudelako da.

Bazkari horietara batzuetan guztiok joaten gara, beste batzuetan ez. Ostiraletan eskolan libre daukagu 12.30tatik 14.30tara (beste egunetan ez), eta egun hori batzuek etxera joateko, erosketak egiteko etab. aprobetxatzen dute, eta beste batzuk elkarrekin bazkaltzera joateko.

Ostiralero ez gara elkarrekin joaten baina hilean behin behintzat denok elkartzen gara”.

A2: “Ostiral batzuetan elkarrekin bazkaltzera joaten gara. Beste eskoletan ostiralero ostiralero egiten dute, eta hemen hasieran ez zuten egiten. Proposamena egin nuen “benga, goazen” eta hasi ginen eta hamabost egunetik- hiru astetik behin joaten gara. Lekuz aldatzeak asko egiten du, kotxea konpartitzea... Kanpora ateratzen zara eta beste inguru batean zaude, beste gai batzuk... Nik esaten nien “nola ez zaretela joaten? Joan egin behar dugu”. Azkenean beste harreman batzuk sortzen dira, beste giro bat da, konplizitate bat sortzen dizu. Arnas- gune bat da. Beti bilera eta formakuntzetan egoten

gara, eta elkarriketa guztiak horren inguruan dira. Aldatzea beharrezkoa da. Ni ostiralero joango nintzateke. Sarritasun falta hori faltan somatzen dut.”

A3: “Ostiraletan ere bazkaltzera joaten direnean, ez agian hamabost egunetik behin, baina bi hilabetez behin joaten naiz”.

A4: “Nahiz eta jornada murriztuan egon, ostiral batzuetan bazkaltzeko geratzen naiz nire borondatez, bazkaltzera kanpora joan eta elkarrekin egoteko, hor gauza askoren inguruan hitz egiten dela jabetzen bainaiz. Saiatzen naiz hori mantentzen. Beti berdinarik gara bazkari hauetara joaten garenak eta bat edo bi ez dira inoiz joaten, eta zerbaitengatik da hori ere bai”.

2.4. Harreman informalen onurak

Guztiak ados agertu dira harreman informalak beraien lanean onuragarriak direla esatean. Onura horiek batzuen ustez beraien irakasle lanean eta proiektuan islatzen dira.

A1: “Bai. Guk proiektuak lan egitearekin, denok gauza berdinarik lantzen ari garela esan nahi du. Eta beste irakasleari transmititzen diozu azkenean “Nik hau landu behar dut, eta zuk beste hau egingo bazenu..”. Ez zara ari bere lana bideratzen baina bai esaten ze ildo jarraitu behar dugun biak, eta harreman ona badugu, askoz errazagoa izaten da. Baina harremana ona ez denean beste batek esatea zer egin behar den ba askotan ez da ondo hartua izaten. Baina hori ez da gure kasua. Beste eskola txikietan egona naiz, eta gertatu izan dira, baina hemen ez da horrelakorik gertatzen. Oso ondo eramaten gara denak, eta lan egiteko garaian antzematen da”.

A2: “Bai, erabatekoa. Niretzako oso garrantzitsuak dira. Iristen zara eskola batera eta ez daukatela harremanik, bakoitza bere gelan sartuta dagoela etab. sumatzea oso hotza da, eta ni horrelakoetan ez naiz gustura joaten. Ezagutzeko azkenean harreman informalak behar dituzu, formaletan ez duzu ezagutzen. Eta formaletarako feeling hori informalen bidez lortzen da.

Harreman informal horiek ondoren formaletan eragina dute, zu azkenean ondo edo gaizki ematen zarenean pertsona batekin, hitz egiteko modua formala izanda ere ez da berdina;

aurpegiak, keinuak... dena. Eta ez duzu berdin jasoko ongi erortzen zaizun batengandik edo gaizki erortzen zaizunarengandik mezu berdina”.

A4: “Erabat. Harreman informal horietatik sortzen da gero konfiantza. Zuk ez baduzu zure lankidearekin egiten ari den horren inguruan galdetzeko konfiantzarik, edota gomendioak emateko, zer nola egin, ez du ezertarako balio. Koordinazio bileretan normalean bakoitza egiten ari denaren inguruan hitz egin eta taula bat egiten da, baina ez dira ideiak elkarbanatzen. Gure artean hitz egiten ari garenean, informaltasun horretan, bai sortzen dira ideiak. Eta egiten ari den horren inguruan ere gomendioak eman ditzakezu “hau erabiliz gero nik uste hobeto aterako dela” adibidez.”

Beste batzuk, aldiz, norberaren ongi izatea eta eskolara etortzeko gogoia aipatu ditu harreman informalean onura nagusitzat.

A2: “Egiten diren ekintzak adibidez, giro txarra badago ez dituzu proposatu ere egiten. Negatiboa bada, ez daukazu lanera etortzeko gogorik, ez zaude motibatuta... Nik uste eskolara gustura etortzea dena dela, asko esan nahi duela”.

A3: “Noski. Harreman informalak positiboak edo negatiboak izan daitezke. Negatiboa bada erabat eragiten du, baita positiboa bada ere. Egunerokotasunean eragiten du. Lanera gustura joatea baina ezer hobeagorik ez dago. Edota disgustora joatea baina ezer okerragorik ez dago; lankide batekin harreman txarra duzulako, edo eztabaida potente bat izan duzulako, denboran distantziak irauten duela. Horrek asko eragiten du, etxetik atera eta lanera joateko izango duzun jarrera guztiz ezberdina izango da.

“Bai, nik uste dut oso garrantzitsua dela. Oso. Azkenean gustagarria da, etxetik etorri eta lankideei begiratu eta zer gertatzen zaizun azaltzeko aukera izatea, beraiek ere ezagutzea zu eta zerbait gertatzen zaizula jabetzea.”

Bestalde, irakasle guztiak harremanen garrantziaren eta ondorioen jakitun izanda, zergatik ez ote duten hauen alde egiten galdetu zaie.

A4: “Jakitun badira, baina ez diete jaramonik egiten, horrek gauza batzuk egin behar dituzula suposatzen baitizu eta agian zu ez zaude prest. Batzuk pentsatzen dute beraien soldata gauza batzuk egiteko badela, baina hortik haratagokoa ez dela dagoeneko beraien egin beharra. Berak klaseak bere modura emango dituela, nahiz eta koordinazioan “bai bai bai” esan, gero nahi duzuna egin dezakezula”.

2.5. Harremanetan eragina duten faktoreak:

Irakasleen arteko harreman egokiak eman ahal izateko batzuk lekua eta denbora oso garrantzitsuak direla esan dute, baita norberaren pertsonalitatea nolakoa den ere.

A2: “Harreman onak eman ahal izateko lekua eta denbora edukitzea beharrezkoa da. Bestalde, pertsonen araberakoa ere bada. Batzuk oso negatiboak dira, eta besteak beti pozik daudenak eta inguruko denak alaitzen dituenak, eta hori niretzako oso garrantzitsua da.

Zu irakasle gela batera sartu eta denak hizketan dauden edo bakoitza bere gauzetan dagoen, ez da iguala. Eta hori pertsonala da azkenean. Zaletasunak konpartitzea izan daiteke, baina beno, nik uste dut pertsonala dela, nolakoa den pertsona hori gehiago. Zaletasun ezberdinak izan ditzakegu, ez konpartitu, baina hitz egin dezakegu horien inguruan. Baina bestea “borde” bat baldin bada, ezin dut hitz egin, ez daukazu gogorik.

Gainera, elkarrekin denbora igaro eta ekintzak egiteak harreman horiek erraztuko dituztela diote beste batzuek.

A3: “Gero detaileen bidez harremanak asko estutzen direla uste dut; tartean behin bazkaritxo bat egitea, ostiraletan elkarrekin bazkaltzea, edota data zehatzetan (inauteriak, san juanak...) bazkariren bat egitea...”

A4: “Konfiantza izatea beraiekin, eta konfiantza harreman informal horietatik etortzen da; bazkarian hitz egiten duzun horretatik, adibidez, gero modu onean baina gauzak esateko erraztasun hori emango dizu, eta badakizu esaten duzun hori besteak jasoko duela, eta balio izango duela”.

Garrantzitsua den beste faktore bat gauzak aurpegira eta zuzenean esatea dela aipatu dute.

A1: “Gauzak aurrez aurre esatea guztiz garrantzitsua da.”

A4: “Ni adibidez oso zuzena naiz. Ez zait batere gustatzen atzetik ibiltzea edota ezin esan ahal izatea. Baina pertsona batekin ezin banaiz zuzena izan, pertsona horrekin ez daukat harremana. Ez zaidalako faltsua izatea gustatzen, ez naizelako horrelakoa. Beti pentsatzen dudana esaten dut. Modu onean, baina esan bai; “nik horrela egingo nuke”. Ezin duzu ezarri, baina bota egiten duzu. Iruditzen zaidalako hobeto geratzen dela, eta berak egin duena baina puntu bat gehiago egin daitekeela, esan egiten dut. Eta askotan besteak “Jo ba bai, ze ideia ona, ez zait bururatu” esaten dizu. Askotan gure presekin eta presioarekin horren zentratuta gaude, gehiago lantzea gustatuko litzaizukela zerbait baina horraino iritsi zarela, eta beste biren ikuspuntua entzun eta nola egingo luketen jakinda “ttak!” bonbila pizten zaizu eta bi segundutan hobetu duzu. Eta nik pila bat eskertzen dut, ez dut kritika negatibo bat bezala hartzen, hobetzeko modu bat bezala baizik. Hemen denok beti hobetu dezakegu, ez gara perfektuak eta lan talde batean gaude”.

Harremanak zailtzen dituzten elementuen inguruan galdetzean, aipatu duten ideia bat norbere iritziaren berdina ez den iritzi hori onartzeko zailtasuna da.

A3: “Edota iritzi hori esaten ez jakitea; desberdina izanagatik ere adostasun batera iritsi gaitezke, nahiz eta berdina ez pentsatu. Nola gestionatzen eta kudeatzen dugun desadostasun hori da.”

Bestalde, beraien harremanetatik mantentzea gustatuko litzaizkieken elementuen inguruan hitz egin dute. Guztiak ados agertu dira ostiraletako bazkaria oso garrantzitsua dela. Gabonetan lagun ezkutua ere egiten dute, eta gustagarria den ideia dela komentatu da.

A2: “Gabonetan lagun izkutua egiten dugu, polita dela baita ere. Hamar euro jartzen dira eta bakoitzak eskulan bat egiten dio tokatzen zaionari. Oso giro polita sortu zen. Positiboa da.”

Baina badaude aldatzea gustatuko litzaizkieken hainbat egoera ere. Horien artean protagonismo nahia adierazten duten ekintzak edota berandutzeak aipatu dira.

A1: “Pertsonaren arabera da. Batzuek protagonistagoak dira. Batzuei gustatzen zaie zerbait egin eta protagonismo eta meritu hori hartzea, nire izaeraren aldetik gutxien gustatzen zaidana, baina tira. Azkenean guztiok berdina egiten ari gara eta beti dago norbait gustatzen zaiona hori.”

A4: “Baten batzuk asko faltatzen dira. Semeak adibidez medikua du eta badoa semearekin medikura. Eta asko faltatzen dira. Eta beti berdinak dira. Eta zuk esaten duzu “Jolin, nik ere seme- alabak ditut baina saiatzen naiz beste bat bidaltzen, badakidalako nik faltatzen badut beste batek ordezkatu beharko nauela.” Eta orduan beti pertsona berdina izateak ba amorrua ematen dit. Edota berandu iristeko tendetzia hori. Beti berdinak iristen dira berandu, hamar minutu bada ere. Ezin duzu berandu iritsi egunero. Ni urrutia egiten nator eta baditut umeak, baina laurden gutxiarako beti hemen nago. Eta gauza horiek bai piska bat erretzen didatela. Baina ez diozu esaten zure laguna delako eta bueno, malgutasun hori ematen diozulako. Niri puntualitatearen asko erretzen dit, badakidalako ni berandu iristen banaiz beste batek joan beharko duela gelara eta azkenean kate bat delako.”

3.1 ANALISI UNITATEA: ESKOLA TXIKIAK

Eskola txikien gaiari helduz, hauek bereizgarri egiten dituzten beraien elementuengatik ia harremanetarako onuragarri diren galdetu zaie. Era guztietako iritziak jaso dira.

A1: “Bai noski. Gutxi gara eta ikasleak ere gutxi dira. Gu une honetan 66 ikasle eta 10 irakasle gara. Famili bat gara. Gure harremanetarako ere bai. Denok dakigu zertaz, zenetaz... ari garen”

A2: “Bai. Azkenean gutxi gara, klaustroetan elkartzen garenean guztiok ezagutzen gara, eta beraiekin hitz egitea besterik ez zaizu geratzen. Eskola handi batean feelingaren arabera juntatzen zara, edo mailakoekin, baina eskola txiki batean “hau da

dagoena”, ezagutzen gara eta ez daukazu besterik, horiekin harremanu beharra daukazu”.

A3: “Eskola txiki txiki bat da, espazioak berak ere horretan laguntzen dizu. Etxe batean bezala gaude. Ez da lankidea pasiloaren beste aldean duzula kasua. Oso gertuko harreman bat da. Nik etxe batean bezala nagoela sentitzen dut”.

A4: “Ez. Egongo dira Eskola Txikiak harremanak onak direnak, eta ez hain onak. Eta eskola handiagotan ere harremanak oso onak eta ez hain onak egon daitezke. Elementuak badituzte errazteko. Baina gero pertsona bakoitza den modukoa da. Pertsona bat ez badago prest harremanak izateko, horrelakoa delako, alperrik da erraztea lana, zuk kontra egiten baduzu eta ez baduzu nahi, behartu ezin zaituztelako egin. Eta kasu horietan zaildu egiten ditu. Zuk pertsona horrekin bai edo bai lan egin behar baduzu, eta berak ez badu nahi, eta gainera bileretan dena “bai bai bai” esaten badute baina atzetik “ez ez ez” bada eta dena nahi duten moduan egiten badute, oso zaila da. Zuk gauza bat pentsatzen duzu, gelara sartzen zara eta bestelakoa ikusten duzu, eta zaila da. Orduan, berez, errazten dituzte, baina gero pertsona bakoitza ezberdinak garenez, pertsonen arabera zer talde osatzen den asko eragiten du, eta zaila egin daiteke gauza”.

3.2. Harremanak eta eskolako klima eta kultura:

Guztiak ados agertu dira harremanek eskolako klima eta kulturaren eragin zuzena dutela esatean.

A1: “Bai, nik hori ikusten dut. Harremana ona dugu gure artean eta hori antzematen da. Denok elkarrekin gaude, irakasle gelan elkartzen garenean farrez ari gara, ez dago bakoitza bere gelan, lanean, ez da ezer entzuten... Ez da gure kasua. Bizitza badago, poza dago gure eskolan, eta nik uste hori ikasleek jasotzen dutela, baita gurasoek ere”.

A3: “Bai, nik uste dut horrek eskolaz kanpo eragiten duela, bai herri txikian, baita herri ez hain txikian ere. Eta horrek guztion ongi izatean laguntzen duela iruditzen zait; harremanak azken batean, harreman politak sortuz, ongi izate batera eraman gaitzakete.”

A4: “Erabatekoa. Gero eta harreman informal hobeak izan gure artean; kafea hartu bitartean hitz egiten duzuna, edota bazkarian... Horrelako gauzak dena egiten dute; konfiantza giroa, pertsona ezagutzea, ze afizio dituen... Hori da dena.

Eskoletan gehiago bultzatu beharko litzateke: elkarrekin bazkaldu, gauza gehiago egin... Horrek ziurtasunezko klima bat sortzen duelako. Gero esaten dizkizun gauza asko ez dituzu gaizki hartzen, badakizulako nolakoa den, edota zein unetan dagoen eta zergatik esan dizun hori”.

V. ATALA: ONDORIOAK

Ikerketa lan hau hainbat helburu betetzeko asmoz abiatu genuen, eta zorionez, irakasleekin egindako elkarrizketen bidez, ondorio ugariara iristeko aukera izan dugu. Horietako bat irakasleen ustez, **azken urteetan beren lanbidea errotik aldatu dela** da, ezberdintasunak hainbat aspektutan somatuz.

Alde batetik irakasle eta familien arteko harremana asko aldatu dela esan dezakegu, gizartea aldatzearen ondorioz, ohiturak ere aldatu egin baitira, eta irakaslea familiekin harremantzeko garaian erronka berri batzuen aurrean topatzen baita.

Bestetik, irakasleak bere jarduna egiteko moduan ere aldaketak egin behar izan ditu, gaur egun irakaslea dagoeneko ez delako soilik erakusteaz arduratzen den pertsona bat, hezkuntza prozesuan bestelako funtzio batzuk betetzen baititu. **Gaur egun irakaslea hezitzaile ere bada**, eta beraz ikasleei erakusteaz gain bestelako kompetentzia batzuetan trebatzeaz arduratzea ere eskatzen zaio.

Honetaz gain, irakasleari egoera aldaketa hauek guztiek hainbat egoera konplexu ekarri dizkio, bere poz eta ondoezetan zuzenki eragiten dietenak. Izan ere, irakaskuntza berez prozesu konplexua da, eta konplexutasun hori ez badugu bere dimentsio osoan ulertzen, irakaslearen motibazio eta asebetetzean eragiten du.

Argi ikusi dugun beste ondorioetako bat **irakasleen arteko harremanak oso garrantzitsuak direla eta bai lanbidean, baita eskolako gainerako prozesuetan ere eragin zuzena dutela izan da.**

Harreman horietan zuzenki eragiten duen faktoreetako bat espazio eta denbora direla ikusi dugu, hauek egokiak direnean harreman informalak errazten baitituzte. Aipatu beharrekoa da **harreman informalek berebiziko garrantzia dutela** berretsi dugula, hauetan hitz egiten baitute irakasleek beraien gauza pertsonalez, horrela beraien arteko harremana sendotu eta konfiantzazko giroak sortzeko aukera egokiak emanez.

Bestalde, irakasleen lanak badituela lan- karga eragiten dieten zeregin extra batzuk ere ikusi dugu, eta horrelakoetan irakasleen arteko harremanak zaildu egiten direla.

Azkenik, aztertu dugun beste aspektu bat Eskola Txikiak irakasleen arteko harremanetarako lagungarri ote diren izan da. Honen inguruan irakasleen pertzepzioetan oinarrituz argi atera dugun ondorioa **Eskola Txikien dimentsio txikiak ez direla harremanetarako faktore determinante bat** izan da. Izan ere, tamaina (txikia/handia) nahiz eta dimentsio lagungarri bat izan daitekeen, konturatu gara badaudela lan honetan aipatzen ditugun beste faktore garrantzitsuago batzuk, hala nola komunikazioa, empatia, konfiantza etab.

Honek guztiak eskolako klima eta kulturaren nola eragiten duen aztertu nahi izan dugu. Horrela bada, harremanak sanoak, positiboak eta onak direnean, eskola horretako klima eta kulturaren sakondu egiten dela eta ondorioz bertakoen ongi izatea areagotzen dela ikusi dugu, honek aipatu modura eskolako prozesu guztietan eraginez.

VI. ATALA: HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Ikaztegietako eskolako irakasleen arteko harremanak aztertu eta harremanek duten garrantziaren inguruan hitz egin ostean, hauen alde egiteko hainbat hobekuntza proposamen azalduko ditugu ondoren.

Horretarako, Ikaztegietako eskolako zuzendariaren larruan jarri eta zuzendari modura nire irakasle taldean harreman egokiak bultzatzeko ditudan pare bat ideia azalduko ditugu.

V. Taula: Hobekuntza proposamenak

IRAKASLEEN PARTE HARTZEA SUSTATUZ	
EREMUA	Irakasle- gela.
NORI ZUZENDUA?	Eskolako irakasle guztiei, bai jardunaldi osoan daudenei, bai murriztuan daudenei, baita ordezkapenak egiten dituztenei ere.
ZEHAZTAPENAK	<p>Kurtso hasieran irakasle guztiei eskola horretako irakasleek beraien arteko harreman informalak indartzeko egin ohi dituzten ekintzen berri emango zaie, adibidez ostiraletan kanpora joan ohi direla bazkaltzera edota gabonetan lagun ezkutua egiten dutela azalduz.</p> <p>Horretaz gain, irakasle bakoitzari ideia berriak dituen galdetu eta proposamen berriak egitera animatzea ere garrantzitsua da, hauek jaso, ulertu eta kontuan hartuz. Oso garrantzitsua da urtez urteko errutina monotono batean ez erortzea, eta proposamen berriak egitea, gauza ezberdinak probatu eta esperimintatzeak motibazio eta irrika sortzen baitu.</p> <p>Horrela bada, zuzendari modura, bilera horretara agertu ezin duten irakasleei (jardunaldi murriztuan daudelako edo ordezkapenak egiten dabilelako, adibidez) guzti honen berri</p>

GRADU AMAIERAKO LANA

	emateko konpromezua hartzen da, beraiek ere eskolaren parte direla eta garrantzitsuak direla erakutsiz.
HELBURUAK	Honen helburua eskolako irakasleak bertako jardueretan parte hartzera animatzea da, hauetan garrantzitsu direla eta eskola horretako parte direla sentiaraziz. Horrela, beraien iritzia plazaratu eta erabakiak kontuan hartzen diren eremu bat sortuta, hauen iniziatiba eta lanerako gogoan eragitea bilatzen da, baita harreman ez formalak hobetzea ere.

Taula: Geuk egina, irakasleen hitzetan oinarrituz

IRAKASLEENTZAT ERLAXAZIO SAIOA	
EREMUA	Psikomotrizitate- gela.
NORI ZUZENDUA?	Eskolako irakasle guztiei, bai jardunaldi osoan daudenei, bai murriztuan daudenei, baita ordezkapenak egiten dituztenei ere.
ZEHAZTAPENAK	Yoga edota mindfulness-ean aditua den irakasle batekin guztiei ondo datorkigun ordu batean erlaxazio saio bat egitea zehaztuko dugu. Saio horretan irakaslearen zehaztapenak jarraituko ditugu, momentu eta une horretan zentratuz eta gure gorputz eta inguruarekin harmonian egotea bilatuz.
HELBURUAK	Honen helburua irakasleak beraien egunerokotasunean izaten dituzten tentsioetatik askatu eta lankideekin batera eroso eta ondo sentiarazten dituzten momentu eta une bat bilatzea da. Izan ere, gure gorputzari entzun eta behar duen lasaitasuna ematen diogunean, inguruan dituen faktoreak aztertzen hasten da, ondo eta pozik sentitzen delako. Ondorioz, gainerako irakasleekin dituen hartu- eman eta harremanak sendotzeko une egoki bat izan daiteke.

Taula: Geuk egina, irakasleen hitzetan oinarrituz

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Apple, M. W. eta Beane, J. A. (1997). *Escuelas democráticas*. Madril. Morata
- Ball, S. J. eta Míguez, N. (1989). *La micropolítica de la escuela: hacia una teoría de la organización escolar*. Bartzelona: Paidós.
- Bauman, Z. (2007). *Los retos de la educación en la modernidad líquida*. Bartzelona: GEDISA.
- Beiza, A. (2012). *Las relaciones interpersonales como herramienta esencial para optimizar el clima organizacional en la escuela básica Nacional Creación Chaguaramos II* [Irakaskuntza tesia, Valentziako Carabobo unibertsitatea]. Hemendik hartua:
<http://mriuc.bc.uc.edu.ve/bitstream/handle/123456789/956/abeiza.pdf?sequence=4>
- Bennett, M. (2013). *Autoconocimiento*. Valentzia: Ediciones i.
- Bisquerra, R. (2011). *Educación emocional. Propuestas para educadores y familias*. Bilbo: Desclée de Brower.
- Castaños, G. (2005). Gurasoak aktiboki lanean. *Hik hasi*, 101, 14-15.
- Castells, M. (ed.) (2006). *La sociedad red: una visión global*. Madril: Alianza Editorial.
- Denzin, N. K., eta Lincoln, Y. S. (2012). *Manual de investigación cualitativa* (Vol. 1). Bartzelona: Gedisa.
- Elías, M. E. (2015). La cultura escolar: Aproximación a un concepto complejo. *Revista Electrónica Educare*, 19(2), 285-301.
- Eskola txikiak. (2018ko ekainak 9a). *Gaur* agerkaria.
https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2018-06-09-07-

00/hemeroteca_articles/eskola-txikiak-baditu-eskola-ideala-izateko-ezaugarriak-tamainak-berak-ematen-dizkigunak

Eskola txikien web orri nagusia. (d.g.) Eskola txikien aurkezpena. 2020ko maiatzaren 2an kontsultatua. <https://www.eskolatxikiak.eus/aurkezpena>

Esteve, J.M. (1984) *Profesores en conflicto*. Madril: Narcea.

Fernandez, I. (2010). Irakasle ona ez da jaiotzen, irakasle ona egin egiten da. Eta uste dut horretarako prestakuntza ezinbesteko lanabesa dela. *Hik hasi*, 145, 16-24.

Flick, V. (2012). *Introducción a la Investigación Cualitativa* (3. Edizioa). Madril: Morata. ISBN: 9788471124807

Fullan, M. eta Hargreaves, A. (2014). *Capital profesional*. Madril: Morata

Goñi, M., eta Etxenausia, A., (2018). Eskola txikiak baditu eskola ideala izateko ezaugarriak, tamainak berak ematen dizkigunak. *Gara*.

Hernández, F. (2011). Prestar atención a la relación pedagógica como alternativa a la concepción de innovación en la docencia que actúa como dispositivo para construir un modo de identidad de estudiantes y profesores en la universidad. *Innovadoc*. Bartzelona: Universitat de Barcelona. 7-10. Hemendik hartua: http://diposit.ub.edu/dspace/bitstream/2445/20946/7/Indaga_t_1.pdf

Hernández-Castilla, R., Ramírez, R. E., eta Farran, N. H. (2013). Prácticas del liderazgo escolar implicado en la promoción de la Justicia Social: estudio de un caso en Educación Secundaria. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 17(2), 263-280.

Hué García, C., (2012). Bienestar docente y pensamiento emocional. *Fuentes*, 12, 47-68.

- Imbernón, F. (2017). *Ser docente en una sociedad compleja. La difícil tarea de enseñar*. Barcelona: Graó.
- Imbernón F. (2018). Isolatutako irakasleak ez du funtzionatzen. Talde- lana nahitaezkoa da. Hil da irakaslea; gora irakasle- taldea! *Hik hasi* 229, 18-25.
- Jiménez, E. P. (2008). El papel del profesorado en la actualidad. Su función docente y social. *Foro de educación*, 6(10), 325-345.
- Johnson, D. W., Johnson, R. T. eta Holubec, E. J. (1994). *Cooperative learning in the classroom*. AEB, Michigan: Association for Supervision and Curriculum Development
- Laiz, E. (2009). Eskola txikiak, ikasbide eta aukera handiak. *Hik hasi*, 137, 15-19.
- Laiz, E. (2017) Ikasgelarik, mailarik eta arlorik gabe hezten. *Hik hasi*, 221, 11-20.
- Lakuntza, I. (2009). Bi hitzetan esanda: Proiektuen bidez, elkarreraginean lanean eta testuinguruari egokituta. *Hik hasi*, 137, 9-10.
- Lirón Ruíz, Y. (2010). La evaluación en la escuela infantil y en otros ámbitos de atención a la infancia: fines, funciones y tipos; Procedimientos e instrumentos. Importancia de la evaluación inicial. La observación. Información a las familias y/u otros agentes. Metodología de la investigación-acción. *Cuadernos de Educación y Desarrollo*, (14).
- Martín, B. B. (2006). Las relaciones interpersonales de los profesores en los centros educativos como fuente de satisfacción. *Convergencia con Europa y cambio en la universidad: XI Conferencia de Sociología de la Educación*, 218-219.
- Medina Rivilla, A. (1992) La construcción de un currículo multicultural. *Educación multicultural e intercultural*. Granada: Impredisur.
- Parrilla, A. eta Sierra, S. (2015). Construyendo una investigación inclusiva en torno a las distintas transiciones educativas. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 18 (1), 161-175.

- Ramírez-Wong, L.C., (2019). *Relaciones interpersonales en el ámbito laboral*. [Gizagarapenean tesia, Guadalajarako Jesuiten unibertsitatea]. Hemendik hartua: <https://rei.iteso.mx/bitstream/handle/11117/5802/Relaciones%20interpersonales%20en%20el%20%20c3%a1mbito%20laboral.pdf?sequence=2&isAllowed=y>
- Sacristán, J. G. (2008). *El valor del tiempo en educación*. Madil: Ediciones Morata.
- Salanova, M. (2003). Burnout en profesores de enseñanza secundaria: un estudio longitudinal. *La enseñanza y el burnout: ¿Una simbiosis irreversible?*, 79-93.
- Salanova, M., Llorens, S., eta García-Renedo, M. (2003). ¿Por qué se están quemando los profesores? *Prevención, trabajo y salud*, 28, 16-20.
- Schön, D. (1983). *The reflective practitioner*. New York: Basic books.
- Stake, R. E. (1998). *Investigación con estudio de casos*. Madril: Ediciones Morata.
- Stolp, S. (1994). *Liderazgo para la cultura escolar*. Clearinghouse on Educational Policy and Management. Hemendik hartua: <http://www.ericdigests.org/2003-3/escolar.htm>
- Torres, C. A. B. (2006). *Metodología de la investigación: para administración, economía, humanidades y ciencias sociales*. Londres: Pearson educación.
- Trilla, J. (1985). *Ensayos sobre la escuela: el espacio social y material en la escuela*. Bartzelona: Laertes.
- Trilla, J. (1993). *La educación fuera de la escuela. Ámbitos no formales y educación social*. Bartzelona: Ariel.
- Waller, W. (1932). *The sociology of teaching*. Hoboken, NJ, US: John Wiley & Sons Inc.

Yáñez Gallardo, R. (2006). Los componentes de la confiabilidad en las relaciones interpersonales entre profesores universitarios. *Estudios pedagógicos (Valdivia)*, 32(1), 77-90.

Yáñez Gallardo, R., Arenas Carmona, M., & Ripoll Novales, M. (2010). El impacto de las relaciones interpersonales en la satisfacción laboral general. *Liberabit*, 16(2), 193-202.

Yarza, X. G., Berg, J., eta Delors, J. (2012). Jacques Delors: elkarrizketa. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria= revista de pensamiento e historia*, (41), 32-36.

Zupiría, X. (2015) *Relaciones interpersonales, Generalidades*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea Argitalpen Zerbitzua. Hemendik hartua: <http://www.ehu.eus/xabier.zupiria/liburuak/relacion/1.pdf>

ERANSKINAK

1. Eranskina: Ikastetxeko zuzendariaren baimena



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Leire Urretabizkaia Eraso-k, Esti Amenabarro Iraolaren zuzendaritzapean egiten ari den Gradu Amaierako Lana Burutu dezan, Ikaztegieta Herri Eskolako Zuzendaritzak, Leire Urretabizkaia Eraso-ri bere ikerketa burutzeko beharrezkoak zaizkion elkarrizketak gure eskolako irakassleei egiteko baimena ematen dio.

Ikaztegieta, 2020ko.....-ren.....a(n)

Sinadura

Zigilua

2. Eranskina: Elkarrizketatutako profesionalen baimenak



Dokumentu honen sinaduraren bitartez, ikerketa honetan parte hartuko duten pertsoneri, ikerketa beraren jatorriaren inguruko berri zehatza eman zaiola ziurtatzen da, baita ere aipatu ikerketan izango duen rol eta parte-hartzeari dagozkion bestelako argibide guztiak ere.

Nik, jaun/andreak, NAN..... zenbakia dudanak, adierazten dut: Irakasleen arteko harreman pedagogikoez kultura eta kliman duten eragina: Ikaztegietako Eskola Txikiaren kasua azterlanari buruz informatua izan naizela.

Aipatu ikerketa hau Esti Amenabarro Iraola, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea denak zuzentzen du. Ikerketa honen helburua da: *Txikia izateagatik bereizgarria den eskola batean dauden irakasleen arteko harremanek dituzten berezitasunak aztertzea, eta hauek bertako kulturaren eta kliman nola eragiten duten behatzea.*

Ikerketa honetan parte hartzeko gure gonbitea onartzen baduzu, elkarrizketa bat egiteko zure baimena eskatzen dugu. Aipatu elkarrizketak 60 minutuko iraupena izango du gutxi gora behera. Elkarrizketa hau eta bertan hitz egingo ditugun gai guztiak grabatuak izango dira, hartara ikertzaileak, zuk aipatu dituzun ideia edota ekarpenak erabiltzeko, aipatu elkarrizketa hauek transkribatu egingo ditu, gero ikerketaren zehar erabiliak izateko, dagozkion konfidentzialitate eta pribatutasun irizpide denak zorrotz beteta.

Ikerketa honetan parte hartzea erabat borondatezkoa da. Bertan jasoko den informazioa erabat konfidentziala izango da eta ez da inolaz ere ikerketa honen helburua ez den beste zeregin batetarako erabiliko. Elkarrizketa hauek kodifikazio sistema berezi bat izango dute eta zure anonimotasuna etengabe bermatua izango da.

Datuen Babesari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, UPV/EHUko webgune hau kontsultatu daiteke: www.ehu.eus/babestu

Ikerketaren zehar edozein zalantza edo argibide egiteko eskubide osoa duzu. Modu berean, edozein unetan aipatu ikerketatik kanpo geratzeko aukera izanik eta horrek ezin du inolako eragozpenik suposatu. Elkarrizketaren zehar galderen bat deserosoa suertatzen bada, jakinarazi ikertzaileari eta ez erantzuteko eskubide osoa duzu.

Oso eskertuta gaude zure parte hartzearekin.

Honela, Esti Amenabarro Iraola (EHU) zuzendutako ikerketa honetan parte hartzea ONARTZEN DUT. Ondo adierazi didate zein helburu dituen aipatu ikerketak. Zehaztu didate baita ere hainbat galdera eta jarduera egiteko nire ekarpena oso inportantea dela eta 60 minutu inguruko iraupena izango dutela burutuko ditugun elkarrizketek.

Nik ikerketa honen testuinguruan eskainiko dudana informazioa konfidentziala dela adierazi nahi dut eta ez dut onartuko ikerketa hau ez den beste zeregin batzuetarako erabiltzerik. Adierazi didate galderak egin ditzakedala eta ikerketaren edozein unetan, kanpo geratzeko ere eskubide osoan

nagoela. Ikerketa honetan izan ditzakedan zalantzak edota argibideak eskatzeko Leire Urretabizkaia Eraso-rekin jarri naiteke harremanetan 681118922 telefonoan.

Baimen honen kopia bat eskuratzen dut eta modu berean, nire elkarrizketa oinarri duen ikerketa honen inguruko informazioa eskainiko zait une oro, baita elkarrizketa eta baita ere ikerketaren zehar sor daitekeen edozein informazio eskuragarri izango dudala.

Parte-hartzailearen izen eta abizenak

Parte hartzailearen sinadura

Data

3. Eranskina: Elkarrizketa gidoiak

1. IRAKASLEA:

1. Zein da zure ustez irakaslea Ikaztegietako eskolan? Zein da bere funtzioa?
2. Irakaslearen funtzioa denboran zehar aldatu dela uste al duzu?
3. Zer eta nola egiten du irakasleak Ikaztegietako eskolan?
4. Zergatik/ Zertarako egiten du hori irakasleak?
5. Ba al dago berezitasunik zuen jardunean Ikaztegietan aritzearen ondoriozkorik?
6. Zeintzuk dira zuen, irakaslearen, ondoezak eta pozak?

2. HARREMANAK:


1. Zer da zure ustez harreman bat?
2. Zein da harremanek eskola batean, zehazki Ikaztegietan, duten garrantzia?
3. Eskola honetan zure ustez non ematen dira zu eta lankideen arteko harreman formalak? Eta informalak?
4. Harreman informalek eraginik badutela uste al duzu zuen arteko harremanean? Zertan edo ze modutan?
5. Zein dira zure ustez lankideekin dituzun harremanak erraztu eta zailtzen dituzten elementuak?
6. Zuen arteko harremanen bidez eskola bateko klima eta kultura aldatzen dela esango zenuke?

3. ESKOLA TXIKIA:

1. Betidanik aritu al zara eskola txiki batean lanean?
2. Eskola Txikiak, bere txikitasun eta bereizgarriengatik, harremanak errazten laguntzen duela uste duzu?
3. Ikaztegietako eskolan, eskola txiki bat izanik, lan egiteko orduan irakasleen arteko harremanei garrantzia ematen zaiela esango al zenuke?
4. Zer mantenduko eta aldatuko zenuke lankideekin dituzun harreman horietatik?
5. Zein harreman eman beharko liratekeela uste duzu eskola txiki bateko ongi izatea bilatu ahal izateko?
6. Beharrezkoa ikusten al duzu irakasleen lana eta harremanak aztertzea? Zergatik?

4. Eranskina: Irakasleak neurri berrien inguruan informatuz:

← 📧 ⚠️ 🗑️ 📧 ⌚ 📧 📧 ⋮ 16 de 1.092 < > Es ⚙️

 **Leire Urretabizkaia** para jue., 7 may. 8:55 (hace 6 días) ☆ ↩️ ⋮

Kaixo

Zer moduz doa dena?
Espero dut zu eta zure familia ondo egotea. Egoera berezi eta gogor honek guztiok aztoratu gaitu, zuek ere lanean hainbat aldaketa egin beharko zenituzten.

Guri ere unibertsitateko kurtsoa amaitzeko orduan gauza asko aldatzera eraman gaitu, azterketak online, klaseak bertualki... baita gradu amaierako lana ere.

Lehenik eta behin beste behin eskerrak eman nahi nizkizuen nire lanean parte- hartzera animatu izanagatik. Egindako elkarrizketak aztertu ditut eta eskertzekoa da zuen jarrera on eta argitasuna galderei erantzuteko orduan.

Hala ere, ez dakit oroituko zaren baina bigarren zati bat geratzen zitzaigun egiteko; argazkien azterketa eta narratiba. Zuek lau argazki atera eta ondoren berriro elkartzean argazki horien inguruan hitz egitea. Oroitzen? Beno, bada pena handiz, egoera den bezalakoa delako, bigarren zati hau berta behera uztea erabaki dugu, bai nik, baita nire lana zuzentzen duen tutoreak ere.

Horregatik, besterik gabe mezu honen helburua nire lanean egindako zuen ekarpenak eskertzea eta bigarren zatirik ez dela egongo jakinaraztea zen. Zure korreo elektronikoa da dudan korreo bakarra, eta gainerako irakasleei ere pertsonalki eskerrak ematea gustatuko litzaidake.

Posible izango zenuke Ainhoa, Nerea eta Saioaren korreokak bidaltzea, ondoren nik beraiei idatzi ahal izateko?
Bestalde, aurreko aldietan aipatu modura, nire lanean zuen testigantzak erabiliko badira ere, guztiz anonimoa izango da, hau da, ez da inon zuen datu pertsonalik agertuko. Baina parte- hartzaileen datu taula bete ahal izateko, zure adina eta irakasle modura daramatzazun urte kopurua jakitea gustatuko litzaidake. Ez dakit posible izango zenukeen datu horiek ematea, ezezko kasuan, lasai ibili.

Azkenik, espero dut maiatza bukaera alderako nire lanaren azken bertsioa dagoeneko egina izatea, eta behin bukatzean bidaliko dizuet bakoitzari, zuen ekarpen eta laguntzari esker sortutako lanboto hau lasai irakurri eta aztertu dezazuen.

Beste behin, mila esker eta animo asko!

Zaindu.

Leire

 para mi jue., 7 may. 9:16 (hace 6 días) ☆ ↩️ ⋮

🗣️ euskera > español Traducir mensaje Desactivar para: euskera ✕

Kaixo Leire,
Eskerrik asko zure mezuagatik. Egoera latza da denontzako bai, guk ere lan egiteko ohiturak egun batetik bestera aldatu beharra izan ditugu eta ez da erreza horrela lan egitea. Zuek ere egoera hau pairatu duzue eta lana ezin bukatua izan da lehenengoa, pena bat...

Bestalde kideen emailak emango dizkizut, arazorik gabe!

38 urte ditut eta irakaskuntzan lanean 2006az geroztik nago lanean, 14urte. Ene! Ze azkar pasatzen dan denbora! 🤔

Zorte on eta ea laister eskolaren batean topo egiten dugun!